

# ITSASOren SEGREGAZIO PROZEDURAREN ZEHAZTAPEN-TXOSTENA

Donostia, 2015eko otsaila



Berio Pasealekua 11, 20018 Donostia  
Tel. (+34) 943 31 00 34  
siadeco@siadeco.net / www.siadeco.net

**Siadeco**<sup>x</sup>  
ikerketa aplikatua

# AURKIBIDEA

<b>0. Sarrera</b> .....	<b>3.</b>
<b>1. Aurrekariak</b> .....	<b>4.</b>
<b>2. Lurralde mugaketa eta biztanleria</b> .....	<b>6.</b>
2.1. Lurralde mugaketa eta azalera .....	6.
2.2. Biztanleria .....	9.
<b>3. Banaketaren arrazoiketa eta onurak</b> .....	<b>11.</b>
3.1. Banaketarako arrazoiak eta herritarren beharrak.....	11.
3.2. Banaketaren onurak .....	13.
<b>4. Itsaso udalerraren bideragarritasun ekonomikoa</b> .....	<b>14.</b>
4.1. Itsasoko Udalak eskaini beharreko zerbitzuen antolaketa .....	14.
4.2. Itsasoko Udalaren ohiko funtzionamendu eta zerbitzuen gastu aurreikuspena .....	17.
4.3. Itsasoko Udalaren sarrera arruntekiko aurreikuspenak .....	20.
4.4. Itsasoko Udalerako aurreikusitako aurrezki-ahalmena .....	23.
4.5. Ezkiorekiko eragin ekonomikoa eta Ezkioko Udal berriaren bideragarritasun ekonomikoa .....	24.
4.6. Itsasoren segregazioa ekonomikoki bideragarria dela egiaztatzen duten adierazle orokorrak .....	32.
<b>5. Ondasun banaketarako prozedura</b> .....	<b>34.</b>
5.1. Ondasun eta betebeharren banaketarako irizpide orokorrak.....	34.
5.2. Ondasunen banaketarako irizpide eta prozeduraren aplikazioa.....	38.
<b>6. Ezkio eta Itsasoko Udalek parteka ditzaketen zerbitzu eta baliabideak finantzatzeko irizpideak</b> .....	<b>48.</b>
<b>7. Itsasoren segregaziorako urratsak, baliabideak eta finantzaketa-plana</b> .....	<b>50.</b>
7.1. Segregazio prozesuaren planifikaziorako urratsak eta hipotesiak .....	50.
7.2. Itsasoren segregazio prozesurako aurreikusitako baliabide ekonomikoak eta finantzaketa-plana .....	53.
<b>8. Ezkio eta Itsasoren arteko ondare banaketa</b> .....	<b>63.</b>
8.1. Itsasoko ondarea .....	64.
8.2. Ezkioko ondarea.....	64.

# 0 SARRERA

Itsaso Ezkio-Itsasotik bereizi ondoren sortuko diren bi udalerriak ekonomikoki bideragarriak izango direla ondorioztatzen zuen Siadeco Ikerketa Elkarrekin eginiko lehen faseko azterlanak. Azterlan hori, *“Itsasoren desanexioari buruzko bideragarritasun ekonomikoa aztertzeke ikerlana”* izeneko txostena da, 2014ko urrian eginia, eta Ezkio-Itsasoko Udalaren web gunean eskura daitekeena. Bigarren txosten hau ordea, segregazio prozeduraren zehaztapen-txostena da, eta bereizketarako urratsak, bi udalerrien arteko ondare banaketa eta ondare banaketaren ondorioz, bi udalerrien artean sor litekeen desorekari aurre egiteko konpentsazio ekonomikoa kalkulatzeko prozedura zehazten ditu. Horrez gain, segregazioaren espedienterako Gipuzkoako Foru Aldundira aurkeztu beharreko dokumentazioaren edukiak ere jasoak daude txosten honetan:

- ➔ AURREKARIAK
- ➔ LURRALDE MUGAKETA ETA BIZTANLERIA
- ➔ BANAKETAREN ARRAZOIKETA ETA ONURAK
- ➔ ITSASO UDALERRIAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA
- ➔ ONDASUN BANAKETARAKO PROZEDURA
- ➔ ITSASOREN SEGREGAZIORAKO URRATSAK, BALIABIDEAK ETA FINANTZAKETA-PLANA
- ➔ EZKIO ETA ITSASOKO UDALEK PARTEKA DITZAKETEN ZERBITZU ETA BALIABIDEAK FINANTZATZEKO IRIZPIDEAK
- ➔ EZKIO ETA ITSASOREN ARTEKO ONDARE BANAKETA

# 1 AURREKARIAK

- o 1964 urtean, Espainiako Ministro-Kontseiluak azaroaren 26ko 3943/194 Dekretua onartu zuen, zeinaren bidez Ezkio eta Itsaso udalerrien bat-egitea onartzen zen. Dekretu horren arabera, *“Ezkio eta Itsasoko Udalek bi udalerrien bat-egitearen eskaera egitea onartu zuten, ondorengoak kontuan hartuta: bi udalerrien konfigurazio geografiko berdina, bi udalerrietako baserrien gertutasuna, landa-guneetako biztanleriarentzat oinarrizkoak diren zenbait zerbitzu bat eginda edukitzea eta biztanleriaren bizi-kalitateak izango lukeen hobekuntza, arreta hobegoa eta efizienteago batekin”*.
- o 1981eko maiatzaren 18ko datarekin Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Toki-Arduralaritzako Sailaren 1981eko apirilaren 9ko erabakia argitaratu zen, «Ezquioga-Ichaso» Udalaren izena aldatu eta «Ezkio-Itsaso» jartzeari buruzkoa.
- o 2003ko martxoan Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Araua onartu zuen. Foru Arau horrek udalbarri berri bat eratzeko bereizketaren ondoren geratzen diren udalbarriek eskubidezko 2.500 biztanle baino gehiago izatea eskatzen duen arren, herritarren iritzia kontuan izan gabe hirurogeiko hamarkadan elkartu ziren udalbarriek berriro banatu nahi badute, eta elkartu baino lehen zituzten ezaugarri historikoak berreskuratu, aurreko araudia erabiliko dela jasotzen du (1690/1986 Errege Dekretua), salbuespen modura.
- o Azken hilabeteetan, Ezkio-Itsaso udalerrian eta bereziki Itsasoko auzo ezberdinetan, herritarren partaidetzarako bilera irekiak egin dira eta Itsasoko herritar askok parte hartu dute batzar horietan. Parte-hartze prozesu horietan, Itsasoko bizilagunek, Itsasoren segregazioaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzea eskatu zuten lehenik; horretarako, sinadura bilketa bat egin zen Itsasoko herritarren artean eta herritarren gehiengoaren sinadurak jaso ziren, Itsasoko bizilagun guztien % 62,7.
- o Txosten honen sarrera aurreratu bezala, segregazioaren bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena egin zuen Siadecok eta ikerlan hori egiteko ere, Itsasoko herritarrekin hainbat bilera egin ziren. Ikerlan horretan, bereiziko diren bi nukleoetako bizilagunek, Ezkio eta Itsasokoek, egun dituzten zerbitzuak eta zerbitzu horien kalitatea murriztu gabe, segregazioaren ondorioz sortuko liratekeen bi udalbarriak ekonomikoki bideragarriak izateko baldintzak zenbateraino betetzen diren

aztertzen da. Txosten horren arabera, segregazioaren ondoren sortuko liratekeen bi udalerriak, Ezkio eta Itsaso, ekonomikoki bideragarriak izango lirateke.

- o Bestetik, Ezkio-Itsasoko Udalak eskatuta, Ezkio-Itsasoko udalerrriaren segregazioari buruzko txosten juridikoa ere egin zen. Txosten horren helburua, Ezkio eta Itsaso nukleoaren segregazio espediente bati hasiera emateko juridikoki dauden aukerak aztertzea izan da. Txosten horretan jasotakoaren arabera, Ezkio eta Itsaso udalerrien segregazioa 2/2003 Foru Arauaren aurretik indarrean zegoen legediaren arabera egingo da (Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 13. Artikulua eta Populazioa eta Udal Barrutiak arautzen dituen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren 9, 10, 11, 13, 14, 15, 16. Artikuluak).
- o Azkenik, Itsasoren desanexioaren aldeko Itsaso bherria elkarteak, Itsasoren desanexiorako eskaera aurkeztu zuen Ezkio-Itsasoko Udalean, bereizketarako espedienteari hasiera emateko eskaria hain zuzen ere. Eskaera hori, Itsasoko herritar gehienek babesarekin aurkeztu zuen Itsaso bherria elkarteak; zehazki, Itsason erroldatutako 18 urte edo gehiagoko 102 herritarren sinadurak aurkeztu zituen; sinadura kopuru altua, espedienteari hasiera emateko gutxienez 68 herritarrenak behar zirela kontuan hartzen bada.

## 2 LURRALDE MUGAKETA ETA BIZTANLERIA

### 2/1 LURRALDE MUGAKETA ETA AZALERA

Eratuko den erakunde berriari, Itsasoko Udalari, dagokion lurralde eremua, 1964an bi udalerriak elkartu aurretik zuen lurralde mugaketarekin bat datorrena izango da.

Itsasok, Ezkiorekiko biztanleria gunee berezitua osatzen du; bi udalerrietako herri-guneen artean lerro zuzenean 3 kilometroko distantzia badago ere, bi guneen arteko dispersioa oso handia da eta errepidez 10 kilometro inguruko distantzia dago.

Ezkio-Itsaso herriak 21,236 km<sup>2</sup>ko azalera du, Ezkiok 12,380 km<sup>2</sup>koa eta Itsasok berriz 8,856 km<sup>2</sup>; beraz, azalerari dagokionena, % 41,7ko pisua hartzen du Itsasok Ezkio-Itsasorekiko.

1. Taula. Ezkio-Itsasoko nukleo ezberdinen azalera.

Eremua	Azalera (km <sup>2</sup> )	%
Itsaso	8,856	41,7
Ezkio	12,380	58,3
<b>Ezkio-Itsaso</b>	<b>21,236</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Ezkio-Itsasoko Udala, 2014. Siadecok landua.*

Ezkio-Itsasok bost herrirekin egiten du muga:

- Iparraldetik: Azpeitiarekin (3,88 km luzeko muga dute)
- Ekialdetik: Beasainekin, Matxinbenta auzoan hasita Alegi auzo inguruan Ormaiztegi herriarekin ematen den hiru herrien arteko mugaraino (7,56 km luzeko muga).
- Hegoaldetik: Ormaiztegi eta Gabiriarekin egiten du muga. Ormaiztegiarekin, Alegi auzoan SantaLutzi errekan Gabiriarekin muga hasten den arte (1,60 km luzeko muga). Gabiriarekin (5,15 km-ko muga)
- Mendebaldetik: Zumarragarekin egiten du muga (4,98 km luzeko muga).


Ezkio eta Itsaso arteko muga berriz, 6,86 km luzekoa da. Iparraldetik hegoaldera ematen den muga da, Matxinbenta auzoan hasi eta Zozabarro errekan Santa Lutzi errekararekin bat egiten duen punturaino luzatzen delarik.

Itsasok, Beasain (ekialdetik), Ormaiztegi eta Gabiriarekin (hegoaldetik) eta Ezkiorekin (mendebaldetik) egiten du muga, eta Ezkiok berriz, Azpeitia (iparraldetik), Itsaso (ekialdetik), Gabiria (hegoaldetik) eta Zumarraga (mendebaldetik) egiten du muga.

Matxinbentan hasita bi herrien muga, tontorrez tontor (Altzorbeko gaina, Txaragaña, ..), Gaztañadiaundi eta Gaztañadizabal paraje inguruan Txarantxoro errekarerekin bat egin arte doa. Txarantxoro erreka da gero ekialdetik mendebalderako muga, Txarantxorroetxeberri inguruan Saletxezarraldetik bera datorren errekaarekin bat egin arte. 888 metro inguruan da aipatu erreka muga.

Ondoren, bien arteko muga Arrobiaga mendi ingururaino doa, bertatik tarte txiki batean Kizkitzako ermitara doan pista da muga. Aipatu pistatik hegoalderantz, Ariola eta Agerregoikoako terrenoen tartetik pasata Zozabarro erreka arte. Zozabarro erreka da ondoren bien arteko muga Santa Lutziaerrekarerekin bat egiten duen arte.

1. irudia. Ezkio eta Itsasoren arteko lurralde mugaketa.



Iturria: Ezkio-Itsasoko Udala, 2014.



## 2/2 BIZTANLERIA

Ezkio-Itsasok 609 bizilagun ditu (iturria: Ezkio-Itsasoko Udala, 2014); horietatik 158 pertsona Itsasori dagokion eremuan bizi dira. Beraz, Ezkio-Itsasoko biztanleriaren % 25,9 Itsasori dagokio.


2. Taula. Biztanle kopuruaren 2009-2014 bilakaera, auzoen arabera.

Auzoa	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Itsaso herri-gunea	7	7	5	5	4	5
Itsaso barreiatua	74	72	69	69	68	66
Oria kalea (Itsaso herri-gunean)	25	23	22	25	27	26
Alegia herri-gunea	22	22	20	22	21	21
Alegia barreiatua	30	28	27	27	27	27
Mandubia	6	6	6	6	6	6
Matximenta	9	9	8	8	8	7
<b>Guztira Itsaso</b>	<b>173</b>	<b>167</b>	<b>157</b>	<b>162</b>	<b>161</b>	<b>158</b>
Ezkio herri-gunea	37	37	36	34	35	34
Ezkio barreiatua	116	119	110	112	105	106
Santa Lutzi-Anduaga herri-gunea	90	85	81	86	79	74
Santa Lutzi-Anduaga barreiatua	109	97	89	87	76	73
Etxeberrialde kalea	69	70	68	66	61	59
Errekabarrena kalea	0	38	73	82	84	96
Iturgain kalea	0	0	0	0	0	9
<b>Guztira Ezkio</b>	<b>421</b>	<b>446</b>	<b>457</b>	<b>467</b>	<b>440</b>	<b>451</b>
<b>Guztira Ezkio-Itsaso</b>	<b>594</b>	<b>613</b>	<b>614</b>	<b>629</b>	<b>601</b>	<b>609</b>

Iturria: Ezkio-Itsasoko Udala, 2014.

Azken urteotako datuei erreparatuta, eta Itsasoko biztanleriaren azken 6 urteetako bilakaerari dagokionez, Itsasoko biztanleria jaitsi egin dela ikus daiteke, 2009an 173 biztanle izatetik 2014an 158 biztanle izatera pasa da (% 8,7ko jaitsiera). Ezkion aldiz, biztanleria igo egin da azken 6 urteetan: 421 biztanle izatetik 451 biztanle izatera (% 7,1eko igoera).

1. Grafikoa. Ezkio-Itsasoko biztanleriaren 2009-2014 bilakaera.



Iturria: Ezkio-Itsasoko Udala, 2014. Siadecok landua.

# 3 BANAKETAREN ARRAZOIKETA ETA ONURAK

## 3/1 BANAKETARAKO ARRAZOIAK ETA HERRITARREN BEHARRAK

Itsasoren segregazioa justifikatzeko arrazoen artean arrazoi historikoak, geografikoak, administratiboak, ekonomikoak... daude; jarraian jasoak daude nagusienak:

- **Arrazoi historikoak:** bere sorkuntzatik (lehen aldiz 1399an aipatzen da Itsaso) 1964 arte Itsaso udalerrri izan zen. 1964an, erregimen frankistaren garaian, orduko Ministroen Kontseiluak azaroaren 26ko 3943/194 Dekretua onartu zuen, zeinaren bidez Ezkio eta Itsaso udalerrrien bat-egitea onartu zen. Herritar asko inoiz ez dira elkarketa horren ondorioz sortu zen udalerrri berriko (Ezkio-Itsaso) parte sentitu, elkarketaren aurreko izaera mantendu izan da nolabait; herritar gisa, Ezkio-Itsasoko herritarrak baino, askoz ere gehiago sentitzen diren Itsasoko herritar Itsasoko biztanle gehienak.
- **Arrazoi geografikoak:** txostenaren aurreko atalean adierazi bezala, bi herri-guneen artean (Ezkio eta Itsaso) errepidez gutxi gorabehera 10 kilometroko distantzia dago. Lerro zuzenean 3 kilometroko distantzia egon arren, bi nukleoen arteko distantzia eta dispersioa oso handia da.
- **Arrazoi administratiboak:**
  - Ezkio-Itsasoko Udalaren udal zerbitzu gehienak (udal bulegoak, mediku kontsulta, gizarte zerbitzuak, eskola, haur eskola, eta abar), Ezkio eta Itsasoko herri-guneen artean kokatzen den Ezkioko Santa Lutzi auzoan kokatuak daude. Ondorioz, gaur egun udal zerbitzu horiek Itsasoko herri-gunetik distantzia handira kokatuak daude eta zerbitzu horiek Itsasoko herri-gunean bertan ezarrita, udal zerbitzuak Itsasoko herritarrengana gerturatuko dira; Itsasoko herri-gunetik egun udal zerbitzu administratiboak kokatzen diren Santa Lutziko gunera, 6 kilometro inguruko distantzia dago.
  - Bestalde itsasoarrek, Urola Garaiarekin baino Goierri eskualdearekin lotura estuagoa izan dute betidanik. Ezkio-Itsasoko Udala Urola Garaia eskualdean kokatua egonik, bereizketarekin Itsasoko Udal berriak aukera gehiago izango du Goierri eskualdearekin lotura gehiago izateko eta bertako

biztanleentzat Goierri eskualdean kokatutako mugakide diren herriekiko harremanak naturalagoak dira.

- **Arrazoi sozio-kulturalak:** Ezkio-Itsaso ia 50 urtez udalerrri bakarra izan arren, Ezkio eta Itsasoko bi herri-guneen artean, oro har ez da lortu udalerrri mailako dinamika sozio-kultural bateraturik. Itsaso herri guneko biztanleek, beren dinamika sozio-kultural propioa dute (jaiak, kultur-dinamika, auzo-lanerako dinamika, etab.); Itsaso udalerrri bihurtuta, Itsasoko dinamika soziokulturala indartsuagoa izateko baliabideak eta erabaki ahalmena berreskuratuko ditu Itsasok.
- **Arrazoi ekonomikoak:**
  - Bi herri-guneetako jarduera sozio-ekonomikoak ezberdintasun nabarmenak erakusten ditu; Ezkion industria sektoreak Itsason baino pisu handiago du, aldiz Itsason, lehen eta hirugarren sektoreek erlatiboki duten pisua altuagoa da. Bi herri guneez garapen sozioekonomikorako dituzten beharrak eta bertako biztanleen ere, ezberdinak dira.
  - Itsasoko herri gunean eta Itsasoko auzoetan inbertsio gehiago egitea lortuko dela aurreikusten da, Itsasok udalerrri izaera berreskuratzen duenean.

Itsasoren herri izaeraren berreskurapenean funtsezkoa ikusten da oinarrizko udal zerbitzuak gerturatzea. Herritarren interes eta beharren arabera kudeaketa administratiboa Itsasotik bertatik egiteari garrantzia handia ematen zaio, eta baita behar horiei erantzuteko aurrekontuaren kudeaketan erabaki ahalmena izateari ere.

Hori horrela izanik, itsasoarrek udal zerbitzu eta azpiegituren inguruan lehentasunezko zatitza jotzen dituzten beharrak agertzen dira:

- **Zerbitzu administratibo orokorrak:** beharrezkotzat jotzen da zerbitzu administratibo orokorrak Itsason bertan jasotzeko aukera izatea, zerbitzu horiek gerturatzea alegia. Zerbitzu horien baitan gutxienez idazkaritza zerbitzua eta gizarte ongizate zerbitzua gerturatzeke beharra azaltzen da.
- **Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena:** Itsasoko herri-gunean zein Alegin, etxebizitza beharra dagoela azpimarratzen da. Azken urteotan Itsasotik beste herri-guneetara egon den biztanleria mugimendua saihestea ezinbestekotzat jo da, baina horretarako etxebizitza gabezia dagoela aipatzen da. Itsason etxebizitza kopurua igotzeko aukera ezberdinak aztertu beharra aipatu da (etxebizitza berriak, baserri zaharretan etxebizitza

gehiago ateratzeko aukerak...). Bestalde, herri bideen konponketa, espazio publikoaren hobekuntza lanak eta argiteria publikoaren berriztapena ere Itsasok dituen beharrak dira, beste batzuen artean.

- **Kultura:** herri-dinamika suspertzeko kultur jarduerari bultzada bat ematea beharrezkoa ikusten da. Horretarako itsasoarrak elkartzeko balioko lukeen gune baten beharra azpimarratu da: gune balioanitz gisa funtziona dezake, kultura-zerbitzu ezberdinak bilduko lituzkeena (jardunaldietarako gunea, ikastaroak eskaintzeko gunea, liburutegia...).
- **Osasun zerbitzuak eta gizarte ongizate zerbitzuak:** lehenetsunezkotzat jotako beharren artean, osasun zerbitzua herritarrei gerturatzea izan da bat. Osasun zerbitzuak, gizarte ongizate zerbitzuak bezala, Itsason bertan eskaintzeak, zerbitzuaren eraginkortasunean eta eskuragarritasunean asko eragingo luke, eta ondorioz, zerbitzu horien erabiltzaile diren herritarren bizi-kalitatea asko hobetuko litzateke.
- **Gizarte ongizatea:** Itsasoren izaera barreiatua kontuan izanik, beharrezkoa ikusten da auzune ezberdinen arteko mugikortasuna erraztuko duen garraio motaren bat antolatzea udaletik (autobus edo taxi zerbitzua...).

### 3/2 BANAKETAREN ONURAK

Arrazoi eta behar horiek guztiek justifikatzen dute Itsasoko udalerrriaren sorrera; udalerrri berriaren sorrerak ekarriko dituen onura nagusiak berriz, honakoak lirateke:

- Itsasok erregimen frankistaren garaian Ezkiorekin elkartua izan aurretik zuen herri izaera berreskuratzea.
- Itsasoko Udalak eskainiko dituen zerbitzuak Itsasoko herritarrentzat hurbilagoak, erosoagoak eta eraginkorragoak izatea.
- Itsasoarrei eskainiko zaizkien udal zerbitzu horiek Itsaso bertatik kudeatuak egotea.
- Aurrekontu publikoen kudeaketan, itsasoarrek erabaki ahalmen handiagoa izatea.
- Udal kudeaketari dagokionean, itsasoarren parte-hartze maila areagotzea.
- Goierri eskualdearekiko lotura berreskuratzea.
- Itsasoren behar eta ezaugarrien araberako jarduerak sustatzea, bertako izaera eusteari garrantzia emanez (kultur jarduerak, jarduera sozialak...).

## 4 ITSASO UDALERRIAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA

Laugarren atal hau, 2014ko urrian eginiko "Itsasoren desanexioari buruzko bideragarritasun ekonomikoa aztertzeko ikerlana" txostenean egina dagoen lanketaren emaitza da eta bideragarritasun ekonomikorako baldintza eta daturik adierazgarrienak biltzen ditu.

### 4/1 ITSASOKO UDALAK ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUEN ANTOLAKETA

Itsasoko udal entitate berritik kudeatu beharreko **zerbitzuen antolaketarako, ondoko irizpideak** hartu dira kontuan:

1. Udal eskumenekoak diren gaietarako, herritarrei zuzendutako jendaurreko arreta zerbitzua Itsason bertan kokatutako udal zerbitzuetatik eskainiko da: irizpide hau betetzea ezinbestekoa da, itsasoarren aldetik udal zerbitzuak herritarrengana hurbiltzeko dagoen eskariaren aurrean.
2. Ezkio-Itsasoko Udalak badu langile funtzionario eta laboralen egitura propio bat eta pertsonal gastuen optimizaziorako beharrezkoa da egun Ezkiorako eta Itsasorako lanean ari diren udal langileak, sortuko diren bi udalerrien artean konpartitzea: baliabideak optimizatzeko helburuarekin eta eraginkortasun irizpideak kontuan hartuta, Ezkio-Itsasoko Udalak gaur egun dituen langile finkoetako batzuk, Ezkio eta Itsasoko Udalentzat lan egiteko neurriak bultzatuko dira.
3. Itsasoko tokiko udal entitate berriaren antolaketa orokorraz arduratuko den teknikari-koordinatzaile bat aurreikusten da, Itsasoko udaleko langile propioa izango den teknikari bat.
4. Gaur egun egun Ezkio-Itsasoko herritar guztiek dituzten udal zerbitzuak eta zerbitzu horien kalitatea ziurtatu ahal izateko (haurtzaindegi zerbitzua, herri eskola, mediku zerbitzua, bake-epaitegi zerbitzua, eta abar), Ezkioko Udala eta Itsasoko Udalaren artean zenbait zerbitzu amankomunatuak izateko bi aldeen arteko akordioak hitzartuko dira.

Bereizketaren ondorioz sortuko den Itsasoko Udal entitate berriaren zerbitzuak antolatzerakoan, **bi eratako zerbitzuak** bereizi daitezke, Itsasoko Udalaren **zerbitzu propioak** eta Ezkioko Udalarekin edo beste erakunderen batekin partekatutako **zerbitzu amankomunatuak**.

- ➔ **Itsasoko Udalak zuzenean kudeatuko dituen udal eskumeneko zerbitzu propioak** ondokoak izango dira, zerbitzu propio horien kudeaketarako aurreikusitako giza baliabideak eta baliabide teknikoak ere zein izango diren ere zehaztuta:

**1) Idazkaritza, udal tramite administratiboak eta herritarrei zuzendutako arreta zerbitzuak.**

- Giza baliabideak:
  - Administraria, %25eko lanaldiarekin.
  - Idazkari-kontuhartzailea, %25eko lanaldiarekin.
  - Teknikari-koordinatzaile orokorra, %75eko lanaldiarekin.
- Azpiegitura eta baliabide teknikoak:
  - Bulegoa: Itsasoko Ostatu gaina, berriztatze lanak egin ondoren.
  - Bulegoko materialak (altzariak, ordenagailuak, bulegoko bestelako materiala).

**2) Itsasoko ondarearen eta azpiegitura publikoen zaintza, mantenua eta kudeaketa:** argiteria publikoa; baserri bideak; kale, plaza, berdegune eta parke publikoak; udal eraikinak eta azpiegiturak; hiri altzariak; hilerriko zerbitzuak; kale garbiketa; azpiegituren muntaiak eta bestelako herri lanak.

- Giza baliabideak:
  - Zerbitzu anitzetako lehen langilea, %25eko lanaldiarekin.
  - Zerbitzu anitzetako bigarren langilea, %25eko lanaldiarekin.
  - Herri lan jakinetarako, zerbitzu kontratazio bidez kontratatutako udalez kanpoko enpresetako pertsonala.
- Azpiegitura eta baliabide teknikoak:
  - Eraikin eta azpiegituren zaintza, mantenu eta garbiketarako tresneria. Lanabes horiek gaur egun Ezkio-Itsasoko Udalak erabiltzen dituenak izango dira, eta horiez gain, Itsasoko Udalak tresneria berria erosteko inbertsioak ere egingo ditu.
  - Udal lokal bat Itsason, brigada lanetarako materialak eta tresneria gorde ahal izateko.

### 3) Euskara, kultura, kirola eta gazteria arloko zerbitzuak:

- Giza baliabideak:
  - Administrataria, %25eko lanaldiarekin.
  - Teknikari-koordinatzaile orokorra, %75eko lanaldiarekin.
  - Itsasoko herritarrak (lan boluntarioa).
  
- Azpiegitura eta baliabide teknikoak:
  - Bulegoa: Itsasoko Ostatu gaina, berriztatze lanak egin ondoren.
  - Kultura eta gazteria arloko jarduerak eta zerbitzuak antolatzeko erabilera anitzeko gelak (liburutegia, ordenagailu gela, bilera gela, proiektzio gela...), azpiegitura horiek Itsason izateko obrak egiten direnean.

#### ➔ Itsasoko Udalak beste erakundeekin partekatutako dituen udal eskumeneko zerbitzu amankomunatuak berriz, ondokoak izango dira:

- 1) **Zabor bilketa:** Sasieta Mankomunitatearen bitartez.
- 2) **Diziplina urbanistikoa:** hirigintza planeamendua; obra handiak eta segregazioak; obra txikiak; jarduera lizentziak; etxebizitzaren sustapena.
  - Baliabideak: udalak kontratatutako kanpoko enpresa baten bitartez jasoko ditu Itsasoko udalak aparejadore eta arkitekto lanen zerbitzuak.
- 3) **Gizarte zerbitzuak** (oinarrizko gizarte zerbitzuak eta etxez etxeko laguntza zerbitzua): Ezkioko Udalarekin partekatutako zerbitzu amankomunatua izatea proposatzen da.
- 4) **Bake epaitegi zerbitzua:** kasu honetan ere Ezkioko Udalarekin partekatutako zerbitzu amankomunatua izatea proposatzen da.
- 5) **Hezkuntza:** Ezkioko Udalarekin partekatutako irakaskuntza arauturako eraikinak eta bestelako azpiegiturak (Ezkioko-Itsasoko Udala kudeatzen ari den herri eskola berriaren proiektua).
- 6) **Haurreskola zerbitzua:** Ezkioko eta Itsasoko udalen artean partekatutako zerbitzua, gaur egun zerbitzu hori eskaintzen den toki berean.
- 7) **Mediku kontsulta, podologia eta erizaintza zerbitzuak:** Ezkioarrentzat zerbitzu horiek eskainiko dituzten profesional berak, baina astean ordu gutxi batzuetan zerbitzu hori Itsaso bertatik eskainita.
- 8) **Ur hornidura, estolderia eta saneamendu zerbitzua** (Gipuzkoako Ur Kontsorzioa)
- 9) **Sustapen ekonomikoa, landa garapena eta turismoa:** UGGASA edo GOIEKI Garapen Agentzien bitartez eta Goimen.



## **4/2 ITSASOKO UDALAREN OHIKO FUNTZIONAMENDU ETA ZERBITZUEN GASTU AURREIKUSPENA**

Ezkio-Itsasoko udalerritik bereizitako Itsaso udalerriko udal entitate berriak finantzatuko ditu itsasoarrei eskaini beharreko zerbitzu guztiak; zerbitzu horiek, indarrean dagoen legediaren arabera udalerrri modura eskaini beharrekoak eta gaur egun itsasoarrek dituzten bestelako zerbitzuak ere izango dira.

“4/1” atalean Itsasoko udal entitate berriarentzat proposatutako zerbitzu antolaketari dagokion gastu arrunten aurreikuspena, ondorengoa da:

### **Pertsonal gastuak – I. kapitulua**

- Itsasoko Udalerako **aurreikusitako pertsonala**:
  - Udal zerbitzuen koordintzaile-teknikaria .... % 75eko lanaldia
  - Idazkari-kontuhartzailea ..... % 25eko lanaldia
  - Administraria ..... % 25eko lanaldia
  - Zerbitzu anitzetako lehen langilea..... % 25eko lanaldia
  - Zerbitzu anitzetako bigarren langilea ..... % 25eko lanaldia
  
- Aurrekontua (I. kapitulua): **80.499 €**

### **Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak – II. kapitulua**

- Gastu-kontzeptuak:
  - Udal zerbitzuen hornidura gastuak eta gastu materialak.
  - Udal zerbitzuen zaintza, konponketa eta mantenu gastuak.
  - Hiri bide publikoei loturiko konponketa eta mantenu gastuak.
  - Argiteria publikoa.
  - Ur hornidura.
  - Hilerriko mantenu eta zerbitzuaren gastuak.
  - Bestelakoak: arratoi galtze zerbitzua, autobus geltokien mantenu gastua, Kizkitzako antenaren arrendamentua...
  
- Aurrekontua (II. kapitulua): **56.821 €**

## Transferentzia arruntak – IV. kapitulua

### ➤ Gastu-kontzeptuak:

Itsasoko Udalak Ezkioko Udalarekin partekatutako dituen zerbitzuen gastuak kalkulatu dira eta zerbitzu horietako batzuk Ezkion eskaini arren, zerbitzu horiei loturiko gastuen zati bat Itsasoko Udalak finantzatzea proposatzen da. Itsasoarrek Ezkioko Udalak ordaindutako zerbitzu horiek erabiltzeko aukera izateagatik, zerbitzu horiei loturiko gastuaren zati bat transferituko dio urtero Itsasoko Udalak Ezkioko Udalari. Transferentzia horren zenbatekoa urtero bi Udalen artean adostu beharrekoa bada ere, Ezkio-Itsasoko Udalaren 2013ko aurrekontuetan oinarriturik eta aurrekontu horretatik Itsasori dagokion zatiaren zenbatekoa kontuan izanik, Itsasoko Udalak Ezkiori egin beharreko transferentzia **33.795** eurokoa dela estimatu da.

Laugarren kapitulutik Itsasoko Udalak egin beharreko ordainketen aurreikuspenak ondokoak dira:

- Ezkioko Udalari transferentzia, partekatutako zerbitzuengatik .33.795 euro
- Mankomunitateei egin beharreko transferentziak.....19.417 euro
- Herriko festetarako transferentziak.....7.246 euro
- Kultura arloko laguntzak .....1.551 euro
- Kirol arloko laguntzak.....671 euro
- Euskara arloko laguntzak .....808 euro
- Matximentako zaborra, argia, etab. ....1.036 euro
- Bestelakoak (berdintasun plana, San Andres ikastetxea, Goruntz dantza taldea, Txindata musika eskola, gizarte ongizateko transferentziak, etab.).....5.110 euro

### ➤ Aurrekontua (IV. kapitulua): **69.635 €**

## Gastu arrunta guztira

Itsasoko Udalerako estimatutako gastu arrunta guztira **206.954 eurokoa** da:

**3. Taula. Itsasoko Udalerako estimatutako gastu arrunta, kapitulu ekonomiko eta partiden arabera.**

Kapitulua	Gastu partida nagusienak	Itsasorako estimatutako aurrekontua
<b>1. KAPITULUA. PERTSONAL GASTUAK</b>	Udaletxeko langileen soldatak eta gizarte segurantzza	80.499 €
	<b>Guztira 1. kapitulua</b>	<b>80.499 €</b>
<b>2. KAPITULUA. ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA</b>	Udalak eskaintzen dituen zerbitzuei loturiko hornidura eta materialarekin loturiko gastuak	41.664 €
	Hiri bide publikoak	8.873 €
	Udalak eskaintzen dituen zerbitzuei loturiko konponketa eta mantenu gastuak	2.515 €
	Arratoi galtze zerbitzua	1.418 €
	Autobus geltokiak	991 €
	Hilerriko gastuak	543 €
	Ur hornidura kontsumoa	373 €
	Ur hornidura sarea	71 €
	Bestelako gastuak: Kizkitzako antenaren arrendamentua, Alegiko frontoiaren aldeko bilketa...	373 €
	<b>Guztira 2. kapitulua</b>	<b>56.821 €</b>
<b>3. KAPITULUA. FINANTZA GASTUAK</b>	Finantza gastuak	- €
	<b>Guztira 3. kapitulua</b>	<b>- €</b>
<b>4. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	Ezkioko Udalari transferentzia	33.795 €
	Hainbat transferentzia: Urola Garaia, Sasieta Mankomunitatea, Uggassa, Eudel, Goimen	19.417 €
	Herriko festetarako transferentziak	7.246 €
	Berdintasun plana, San Andres ikastetxea, Goruntz dantza taldea, Txindata musika eskola, presoen bisitak, gizarte ongizateko transferentziak, Balantzategi ikastetxea, Hirugarren munduari transferentzia, gizarte ongizateko laguntzak...	5.110 €
	Kultura arloko laguntzak	1.551 €
	Matximentako zaborra, argia eta bestelako gastuak	1.036 €
	Euskara arloko laguntzak	808 €
	Kirol arloko laguntzak	671 €
	<b>Guztira 4. kapitulua</b>	<b>69.635 €</b>
		<b>206.954 €</b>

Iturria: Siadeco, 2014.

Itsasorako estimatutako **gastu arrunta biztanleko, Ezkio-Itsasoko biztanleko gastu arruntaren gainerik** kokatzen da. Biztanle bakoitzeko Itsasoko Udalak 1.309,8 euroko gastu arrunta izango luke estimazio honen arabera. Azken 5 urteetan Ezkio-Itsasoko Udalak biztanle bakoitzeko egindako gastuaren gainerik kokatzen da kopuru hori (Ezkio-Itsasoko Udalaren biztanleko gastu arrunta 1.188,4 euro biztanleko izan da).

4. Taula. Ezkio-Itsasoko Udalaren 2009-2013 arteko gastu arrunta eta Itsasorako estimatutako gastu arrunta.

	€	€/biztanle
Ezkio-Itsasoko Udalaren gastu arrunta (2009-2013)	723.737 €	1.188,4 €/bizt
<b>Itsasoko Udalaren estimatutako gastu arrunta</b>	<b>206.954 €</b>	<b>1.309,8 €/bizt</b>

Iturria: Siadeco, 2014.

#### 4/3 ITSASOKO UDALAREN SARRERA ARRUNTEKIKO AURREIKUSPENAK

Itsasoko Udalak bere funtzionamendurako eta zerbitzu publikoen finantzaketarako ondorengo diru-sarrerak izango lituzkeela estimatu da, izaera ekonomikoaren arabera:

##### Zuzeneko zergak – I. kapitulua

- o Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ..... 18.163 €
- o Hiri ondasunak ..... 11.843 €
- o Landa ondasunak ..... 2.016 €
- o Hiri lurren balioaren gehikuntzaren zerga ..... 1.529 €
- o Jarduera ekonomikoaren gaineko zergak ..... 2.117 €
- o **ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA (I. kap.) ..... 35.668 €**

##### Zeharkako zergak – II. kapitulua

Kapitulu honetan batez ere eraikuntza, instalazio eta obrak egiteagatik ordaindu beharreko zerga bilketatik eratorritako sarrerak biltzen dira. Zerga mota horien estimazioa Ezkio-Itsasoko Udalaren sarreretan oinarrituta egin da eta honela, kapitulu honetan zeharkako zergen bidez Itsasok **10.818 euro** eskuratuko lituzkeela estimatu da.

- o **ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA (II. kap.) ..... 10.818 €**

### Tasak eta bestelako zergak – III. kapitulua

Tasa eta bestelako zergengatik Itsasoko Udalak **27.274 euro**ko diru sarrerak izango lituzkeela estimatu da Ezkio-Itsasoko Udalaren zergetan oinarrituta.

Toki eskumeneko zerbitzuak eskaini edo jarduerak egiteagatiko tasen bidez eskuratuko lituzke Itsasoko Udalak diru-sarrera gehien kapitulu honetan (hau da, etxez etxeko zabor bilketa, hirigintza baimenak, udal hilerrietan zerbitzuak emateagatiko tasak...), guztira 12.943 euro.

- o **TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK GUZTIRA (III. kap.)..... 27.274 €**

### Transferentzia arruntak – IV. kapitulua

IV. kapitulutik Itsasoko Udalak **189.253 euro** eskuratuko lituzkeela estimatu da. Horietatik 179.353 euro Gipuzkoako Foru Aldunditik jasoko lituzke udalak, Udalak Finantzaketarako Foru Fondoaren baitan.

IV. kapituluko bestelako diru-sarrerei dagokienez, Itsasoko Udalak Redesa enpresarekin egindako hitzarmena medio izango lukeen 7.000 euroko diru-sarrera dago (azpi-estazio elektrikoa Itsasoko lurretan egoteagatik). Bestelako transferentzia bidezko diru-sarreren zenbatekoa, berriz, 2.900 eurokoa litzateke.

- o **TRANSFERENTZIA ARRUNTAK GUZTIRA (IV. kap.)..... 189.253 €**

### Ondare sarrerak – V. kapitulua

Ondare sarrerengatik Itsasoko Udalak izango lituzkeen diru-sarrerak **6.516 euro**koak izan daitezkeela estimatu da.

- o **ONDARE SARRERAK GUZTIRA (V. kap.)..... 6.516 €**

## Ohiko sarrerak guztira

Itsasorako estimatutako ohiko sarrerak guztira **269.529 eurokoak** dira:

5. Taula. Itsasoko Udalerako estimatutako ohiko sarrerak, kapitulu ekonomiko eta partiden arabera.

Kapitulu	Gastu partida nagusienak	Itsasorako estimatutako aurrekontua
<b>1. KAPITULUA. ZUZENEKO ZERGAK</b>	Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga	18.163 €
	Hiri ondasunak	11.843 €
	Enpresa jarduerak	2.117 €
	Landa ondasunak	2.016 €
	Hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga	1.529 €
	<b>Guztira 1. kapitulua</b>	<b>35.668 €</b>
<b>2. KAPITULUA. ZEHARKAKO ZERGAK</b>	Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	10.818 €
	<b>Guztira 2. kapitulua</b>	<b>10.818 €</b>
<b>3. KAPITULUA. TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK</b>	Zabor bilketa, udal hilerriak, hirigintza baimenak ematea	12.943 €
	Herri bideen erabilera; erriel, zutoin, kable, tximeleta...	7.668 €
	Partikularren itzulketak, isunak, premiamendu errekareruak, berandutze interesak, inprebistoak...	6.483 €
	Besterik	179 €
	<b>Guztira 3. kapitulua</b>	<b>27.274 €</b>
<b>4. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	Itundutako tribuetako partaidetza	179.353 €
	Hitzarmena: Redesa	7.000 €
	Bestelako transferentzia arruntak	2.900 €
	<b>Guztira 4. kapitulua</b>	<b>189.253 €</b>
<b>5 . KAPITULUA. ONDARE SARRERAK</b>	Kontu korrontea eta libretako interesak, errentak	6.516 €
	<b>Guztira 5. kapitulua</b>	<b>6.516 €</b>
<b>GUZTIRA SARRERA ARRUNTAK</b>		<b>269.529 €</b>

Iturria: Siadeco, 2014.

Itsasorako estimatutako biztanle bakoitzeko ohiko sarrerak Ezkio-Itsasoko Udalekoak baino altuagoak dira: 136 euro gehiagoko diru-sarrerak izango lituzkete Itsasoko biztanleek segregazioaren ondoren. Igoera hori batez ere UFFFren bidez biztanleko udalerrri txikiek diru-sarrera gehiago eskuratzen dituztelako da.

**6. Taula. Ezkio-Itsasoko Udalaren 2009-2013 arteko ohiko sarrerak eta Itsasorako estimatutako ohiko sarrerak.**

	€	€/biztanle
2009-2013ko ohiko sarrerak (Ezkio-Itsasoko Udala)	956.191 €	1.570,1 €/biza
<b>Estimatutako ohiko sarrerak (Itsasoko Udala)</b>	<b>269.529 €</b>	<b>1.705,9 €/biza</b>

*Iturria: Siadeco, 2014.*

#### **4/4 ITSASOKO UDALERAKO AURREIKUSITAKO AURREZKI-AHALMENA**

Itsasoko Udalaren sarrera arruntetarako aurreikuspenak 269 mila eurokoak izanik eta gastu arruntenak (finantza gastuak sartu gabe) 206 mila eurokoak, Itsasoko Udalak urtean 63 mila euro inguruko aurrezki ahalmen gordina izango luke.

**7. Taula. Itsasoko Udalarentzat estimatutako aurrezki ahalmena**

Adierazle ekonomikoa	Zenbatekoa
Ohiko sarrerak GUZTIRA	269.529 €
Gastu arrunta (finantza gastuak sartu gabe)	206.954 €
<b>AURREZKI AHALMEN GORDINA</b>	<b>62.575 €</b>
Finantza gastuak	0 €
<b>AURREZKI AHALMEN GARBIA</b>	<b>62.575 €</b>

*Iturria: Siadeco, 2014.*

#### **4/5 EZKIOREKIKO ERAGIN EKONOMIKOA ETA EZKIOKO UDAL BERRIAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA**

Atal honetan, Ezkio-Itsaso Udalerriak Itsaso segregatzeak Ezkioko biztanleengan ikuspegi ekonomikotik zein eragin izango lukeen eta segregazioa gertatu ondoren geratzen den Ezkioko Udalaren bideragarritasun maila zenbatekoa izango litzatekeen aztertzen da.

##### **4/5/a EZKIOKO UDALAREN GASTU ARRUNTETARAKO ESTIMAZIOA**

Ezkioko udal entitatearen zerbitzu antolaketari dagokion gastu arrunten aurreikuspena, ondorengo da:

#### **Pertsonal gastuak – I. kapitulua**

##### **➤ Ezkioko Udalerako aurreikusitako pertsonala:**

- Idazkari-kontuhartzailea ..... % 100eko lanaldia
- Idazkari-administraria ..... % 75eko lanaldia
- Zerbitzu anitzetako langilea ..... % 75eko lanaldia
- Liburuzaina ..... % 25eko lanaldia
- Gizarte laguntzailea ..... % 21,34ko lanaldia
- Bake epaitegiko idazkaria ..... % 13,34ko lanaldia

##### **➤ Aurrekontua (I. kapitulua): 248.182 €**

#### **Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa – II. kapitulua**

##### **➤ Gastu-kontzeptuak:**

- Udal zerbitzuen hornidura gastuak eta gastu materialak.
- Udal zerbitzuen zaintza, konponketa eta mantenu gastuak.
- Hiri bide publikoei loturiko konponketa eta mantenu gastuak.
- Argiteria publikoa.
- Ur hornidura.
- Hilerriko mantenu eta zerbitzuaren gastuak.
- Bestelakoak: arratoi galtze zerbitzua, autobus geltokien mantenu gastua...

##### **➤ Aurrekontua (II. kapitulua): 240.454 €**



## Transferentzia arruntak – IV. kapitulua

Laugarren kapitulutik Ezkioko Udalak egin beharreko ordainketen aurreikuspenak ondokoak dira:

- o Mankomunitateei egin beharreko transferentziak.....55.425 euro
- o Herriko festetarako transferentziak.....6.296 euro
- o Kultura arloko laguntzak .....4.429 euro
- o Kirol arloko laguntzak.....3.001 euro
- o Euskara arloko laguntzak .....2.216 euro
- o Bestelakoak (berdintasun plana, San Andres ikastetxea, Goruntz dantza taldea, Txindata musika eskola, gizarte ongizateko transferentziak, etab.).....8.553 euro

➔ Aurrekontua (IV. kapitulua): **79.920 €**

## Gastu arrunta guztira

8. Taula. Ezkioko Udalerako estimatutako gastu arrunta, izaera ekonomikoaren arabera.

Kapitulua	Gastu partida nagusienak	Ezkiorako estimatutako aurrekontua
<b>1. KAPITULUA. PERTSONAL GASTUAK</b>	Udaletxeko langileen soldatak eta gizarte segurantzak	248.182 €
	<b>Guztira 1. kapitulua</b>	<b>248.182 €</b>
<b>2. KAPITULUA. ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA</b>	Udalak eskaintzen dituen zerbitzuei (udaletxea, kultur-etxea, osasun-etxea, liburutegia, haurreskola, podología zerbitzua, hirigintza zerbitzua) loturiko hornidura eta materialarekin loturiko gastuak	165.162 €
	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	43.440 €
	Hiri bide publikoak	12.143 €
	Udalak eskaintzen dituen zerbitzuei (udaletxea, osasun-etxea, kultur-etxea...) loturiko konponketa eta mantenu gastuak	10.653 €
	Gastua bere osotasunean Ezkiori dagokionean	3.433 €
	Arratoi galtze zerbitzua	1.982 €
	Autobus geltokiak	1.321 €
	Ur hornidura kontsumoa	1.493 €
	Hilerriko gastuak	543 €
	Ur hornidura sarea	283 €
	<b>Guztira 2. kapitulua</b>	<b>240.454 €</b>
<b>3. KAPITULUA. FINANTZA GASTUAK</b>	Finantza gastuak	- €
	<b>Guztira 3. kapitulua</b>	<b>- €</b>
<b>4. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	Urola Garaia transferentzia, Sasieta Mankomunitateari transferentzia, Uggassari transferentzia, Eudeli transferentzia eta Goimeni transferentzia	55.425 €
	Herriko festetarako transferentziak	6.296 €
	Berdintasun plana, San Andres ikastetxea, Goruntz dantza taldea, Txindata musika eskola, presoan bisitak, gizarte ongizateko transferentziak	8.553 €
	Kultura arloko laguntzak	4.429 €
	Kirol arloko laguntzak	3.001 €
	Euskara arloko laguntzak	2.216 €
	<b>Guztira 4. kapitulua</b>	<b>79.920 €</b>
<b>GUZTIRA GASTU ARRUNTAK</b>		<b>568.556 €</b>

Iturria: Siadeco, 2014.

Itsaso Ezkio-Itsasotik segregatu ondoren, Ezkioko Udalaren gastu arrunta, Ezkio-Itsasok gaur egun duena baino % 21,4 baxuagoa izango litzatekeela estimatu da. Ezkio-Itsasoko Udalaren gastu arrunta 723,7 mila eurokoa izatetik, Ezkiokoa 568,6 mila eurokoa izatera pasako litzateke. Biztanle bakoitzeko egindako gastua zertxobait igoko litzateke: biztanleko 1.188,4 euroko gastu arrunta izatetik, biztanleko 1.260,7 euroko gastua izatera pasaz.

9. Taula. Ezkio-Itsasoko Udalaren gastu arrunta eta Ezkiorako estimatutako gastu arrunta

	€	€/biztanle
Ezkio-Itsasoko Udalaren gastu arrunta (2009-2013)	723.737 €	1.188,4 €/bizt
<b>Ezkiorako estimatutako gastu arrunta</b>	<b>568.556 €</b>	<b>1.260,7 €/bizt</b>

Iturria: Siadeco, 2014.

#### 4/5/b EZKIOKO UDALAREN SARRERA ARRUNTETARAKO ESTIMAZIOA

Ezkioko Udalak bere funtzionamendurako eta zerbitzu publikoen finantzaketarako ondorengo diru-sarrerak izango litzatekeela estimatu da. izaera ekonomikoaren arabera:

##### Zuzeneko zergak – I. kapitulua

- o Hiri ondasunak ..... 117.356 €
- o Jarduera ekonomikoaren gaineko zergak ..... 26.074 €
- o Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ..... 57.547 €
- o Landa ondasunak ..... 3.869 €
- o Hiri lurren balioaren gehikuntzaren zerga ..... 2.935 €
- o **ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA (I. kap.) ..... 207.780 €**

##### Zeharkako zergak – II. kapitulua

Kapitulu honetan batez ere eraikuntza, instalazio eta obrak egiteagatik ordaindu beharreko zerga bilketatik eratorritako sarrerak biltzen dira. Zerga mota horien estimazioa Ezkio-Itsasoko Udalaren sarreretan oinarrituta egin da eta honela, kapitulu honetan zeharkako zergen bidez Ezkiok **30.880 euro** eskuratuko litzatekeela estimatu da.

- o **ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA (II. kap.) ..... 30.880 €**

### Tasak eta bestelako zergak – III. kapitulua

Tasa eta bestelako zergengatik Ezkioko Udalak **119.910 euro**ko diru sarrerak izango lituzkeela estimatu da Ezkio-Itsasoko Udalaren zergetan oinarrituta.

Toki eskumeneko zerbitzuak eskaini edo jarduerak egiteagatiko tasen bidez eskuratuko lituzke Ezkioko Udalak diru-sarrera gehien kapitulu honetan (hau da, etxez etxeko zabor bilketa, udal hilerriak, etxez etxeko laguntza zerbitzua, establezimenduak irekitzeko baimena, hirigintza baimenak...), guztira 51.903 euro.

▷ **TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK GUZTIRA (III. kap.)..... 119.910 €**

### Transferentzia arruntak – IV. kapitulua

IV. kapitulutik Ezkioko Udalak **390.923 euro** eskuratuko lituzkeela estimatu da. Horietatik 312.405 euro Gipuzkoako Foru Aldunditik jasoko lituzke udalak, Udalak Finantzaketarako Foru Fondoaren baitan.

Foru Fondoaz gain, Ezkioko Udalak Itsasoko Udaletik 33.795 euro jasoko lituzkeela estimatu Bestelako transferentzia bidezko diru-sarreraren zenbatekoa, berriz, 44.723 eurokoa litzateke (etxez etxeko laguntza zerbitzua, AHT teknikoengatik dirulaguntza, anbulategi gastuengatik, liburutegia...).

▷ **TRANSFERENTZIA ARRUNTAK GUZTIRA (IV. kap.)..... 390.923 €**

### Ondare sarrerak – V. kapitulua

Ondare sarrerengatik Ezkioko Udalak izango lituzkeen diru-sarrerak **23.524 euro**koak izan daitezkeela estimatu da.

▷ **ONDARE SARRERAK GUZTIRA (V. kap.)..... 23.524 €**

## Ohiko sarrerak guztira

10. Taula. Ezkioko Udalerako estimatutako ohiko sarrerak, izaera ekonomikoaren arabera.

Kapitulua	Gastu partida nagusienak	Ezkiorako estimatutako aurrekontua
<b>1. KAPITULUA. ZUZENEKO ZERGAK</b>	Hiri ondasunak	117.356 €
	Enpresa jarduerak	26.074 €
	Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga	57.547 €
	Landa ondasunak	3.869 €
	Hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga	2.935 €
	<b>Guztira 1. kapitulua</b>	<b>207.780 €</b>
<b>2. KAPITULUA. ZEHARKAKO ZERGAK</b>	Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	30.880 €
	<b>Guztira 2. kapitulua</b>	<b>30.880 €</b>
<b>3. KAPITULUA. TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK</b>	Zabor bilketa, udal hilerriak, udal kiroldegiak, podologo kontsulta, partikularren itzulketa, isunak, premiamendu errenergua, berandutza interesak, telefonicako sarreretan partaidetza, partikularren kargurako laneng,sar. eta inprebistoei	53.442 €
	Establezimenduak irektizeko baimena, hirigintza baimenak ematea eta erriel, zutoin, kable, tximeleta...	55.846 €
	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	10.201 €
	Herri bideen erabilera	422 €
	<b>Guztira 3. kapitulua</b>	<b>119.910 €</b>
<b>4. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	Itundutako tribuuetako partaidetza	312.405 €
	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	31.225 €
	Bestelakoak (Dirulaguntza AHT teknikoak, Anbulategi gastuak - EUDEL, Osakidetza , larrialdi sozialeko laguntza, Liburutegia, bake epaitegia...)	13.498 €
	Itsasoko Udalaren transferentzia	33.795 €
	<b>Guztira 4. kapitulua</b>	<b>390.923 €</b>
<b>5 . KAPITULUA. ONDARE SARRERAK</b>	Kontu korronea eta libretako interesak, errentak	18.600 €
	Funcasari emakida administratiboa	4.924 €
	<b>Guztira 5. kapitulua</b>	<b>23.524 €</b>
<b>GUZTIRA SARRERA ARRUNTAK</b>		<b>773.017 €</b>

Iturria: Siadeco, 2014.

Itsasoren bereizketak ohiko sarreretan izango lukeen eragina aztertuta, Ezkio-Itsasoko Udalak gaur egun dituen ohiko sarreretan % 19,2ko jaitsiera izango litzatekeela aurreikusten da. Ezkio-Itsasoko Udalak urtean batez beste 956,2 mila euroko sarrerak izanik (2009-2013 urteak kontuan hartuta), Ezkioko Udalak 773,0 mila euroko sarrerak izango lituzke. Estimazio honen arabera, Ezkion biztanle bakoitzeko diru-sarrerak Ezkio-Itsasori dagozkionak baino altuagoak dira: 1.570,1 euro biztanleko diru-sarrerak izatetik, 1.714,0 euroko diru-sarrerak izatera pasaz.

**11. Taula. Ezkio-Itsasoko Udalaren ohiko sarrerak eta Ezkiorako estimatutako ohiko sarrerak.**

	€	€/biztanle
2009-2013ko ohiko sarrerak (Ezkio-Itsasoko Udala)	956.191 €	1.570,1 €/biza
<b>Ezkiorako estimatutako ohiko sarrerak</b>	<b>773.017 €</b>	<b>1.714,0 €/biza</b>

*Iturria: Siadeco, 2014.*

**4/5/c EZKIOKO UDALERAKO AURREIKUSITAKO AURREZKI AHALMENA**

Itsaso Ezkio-Itsasotik bereizi ondoren, Ezkioko Udalak **204.461 euroko** aurrezki ahalmena izango duela estimatu da, finantza gastuak sartu gabe.

**12. Taula. Ezkiorako estimatutako aurrezki ahalmena**

Adierazle ekonomikoa	Zenbatekoa
Ohiko sarrerak GUZTIRA	773.017 €
Gastu arrunta (finantza gastuak sartu gabe)	568.556 €
<b>AURREZKI AHALMEN GORDINA</b>	<b>204.461 €</b>
Finantza gastuak	0 €
<b>AURREZKI AHALMEN GARBIA</b>	<b>204.461 €</b>

*Iturria: Siadeco, 2014.*

#### 4/5/d EZKIOKO HERRITARRENGAN ITSASOREN SEGREGAZIOAK IKUSPEGI EKONOMIKOTIK IZANGO DUEN ERAGINA

Gaur egun Ezkio-Itsasoko Udalak batez beste urtean lortzen duen aurrezki ahalmena biztanleko 381,9 euro izanik, Itsaso berezi ondoren, Ezkioko Udalak ezkiotar bakoitzeko izango duen aurrezki ahalmena handiagoa izango da, zehazki 453,4 euro biztanlekoa. Edonola ere kontuan hartu behar da, kalkulu horiek honako hipotesiekin egin direla: alde batetik hainbat udal zerbitzu, Ezkioko Udala eta Itsasoko Udalaren artean partekatuak, eta beraz, bi Udalen artean finantzatutakoak izango direla; bestetik berriz, orain Ezkio-Itsasoko Udalean lan egiten duten administrariaren pertsonal gastuen % 25 eta zerbitzu anitzetako langilearen pertsonal gastuen beste % 25 Itsasoko Udalak finantzatzea aurreikusi dela. Zerbitzu eta gastu horiek partekatuko ez balira, Ezkioko Udalaren aurrezki ahalmena baxuagoa izango litzateke.

**13. Taula. Ezkio-Itsasoko Udalaren eta Ezkioko Udalarentzat aurreikusitako ahurrezki ahalmenak.**

Adierazle ekonomikoa		Ezkio-Itsasoko Udala 2009-2013	Ezkioren pareko udalerrak	Ezkiorako estimatua
Aurrezki ahalmen gordina	€	232.593 €	127.842 €	204.461 €
	€/bizt	381,9 €/bizt	291,2 €/bizt	453,4 €/bizt
Aurrezki ahalmen garbia	€	<b>220.722 €</b>	<b>92.395 €</b>	<b>204.461 €</b>
	€/bizt	362,4 €/bizt	210,5 €/bizt	453,4 €/bizt

*Iturria: Siadeco, 2014.*

#### **4/6 ITSASOREN SEGREGAZIOA EKONOMIKOKI BIDERAGARRIA DELA EGIAZTATZEN DUTEN ADIERAZLE OROKORRAK**

- **Eratuko diren bi udal berrien gastu arrunten batura, gaur egun Ezkio-Itsasoko Udalak dituen baina 51,7 mila euro altuagoa izango da.** Igoera hori, batez ere pertsonal gastuei lotua dago; izan ere, Ezkio-Itsasoko Udalerako lan egiten duen pertsonalaz gain, Itsasoko Udalaren funtzionamendurako 1,25 lanpostu berri sortuko direla aurreikusi baita.
  
- **Eratuko diren bi udal berrien sarrera arrunten batura ere ordea, gaur egun Ezkio-Itsasoko Udalak dituen baina altuagoa izango da, 86,4 mila euro gehiago hain zuzen ere.** Ohiko sarreraren igoera hori Udalak Finantzatzeko Foru Fondotik eskuratutako diru-sarreraren igoerak eragindakoa da. Sortuko diren bi udal berriak biztanleriaz baxuagoak izatean, bietako bakoitzak Foru Fondotik eskuratuko lukeen diru-sarrera orain udal berri bakar modura eskuratzen dutena baino altuagoa litzateke, Foru Fondoa biztanleriaren arabera aldatu egiten baita eta biztanle gutxieneko udalberriek biztanle bakoitzeko eskuratzen duten sarreraren ratioa altuagoa baita.
  
- **Segregazioaren ondoren sortuko liratekeen bi udalberrien aurrezki ahalmen gordin bateratua, Ezkio-Itsasoko Udalaren 2009-2013 arteko aurrezki ahalmen gordina baino 34,4 mila euro altuagoa izango litzateke;** aurrezki ahalmen garbia, berriz, 46,3 mila euro gehiagokoa.
  
- **Itsasoko Udal berriak, udalaren ohiko funtzionamendu gastuak, herritarrei eskaini beharreko ohiko zerbitzuen gastuak eta gaur egun Ezkio-Itsasoko Udalak eskaintzen dituen zerbitzuenak, urtean 207 mila euro inguruko gastu arruntarekin finantzatu ahal izango ditu.** 120 eta 260 biztanle artean dituzten Gipuzkoako 8 udalberrien 2009-2013 urteetako batez besteko gastu arrunta, 229 mila eurokoa da.
  
- **Itsasoko Udal berriaren sarrera arruntak urtean 270 mila euro ingurukoak izango direla aurreikusten da, eta beraz, sarrera arruntekin gastu arruntak ordaindu eta 63 mila euro inguruko aurrezki ahalmena izango duela, inbertsio errealak egiteko erabili daitekeena.** 120 eta 260 biztanle artean dituzten Gipuzkoako 8 udalberrien 2009-2013 urteetako batez besteko sarrera arruntak, 272 mila eurokoak izan dira; pareko udalberri horien batez besteko aurrezki ahalmen gordina 72 mila eurokoa izan da eta aurrezki ahalmen garbia 60 mila eurokoa.
  
- **Ezkioko Udalaren ohiko funtzionamendurako gastu arrunta 569 mila euro ingurukoa izango dela aurreikusten da.** 330 eta 610 biztanle artean dituzten Gipuzkoako 8 udalberrien 2009-2013 urteetako batez besteko gastu arrunta 377 mila eurokoa da.



- ➔ **Ezkioko Udalak urtean 773 mila euroko sarrera arruntak izango dituela aurreikusten da; gastu arruntak ordaindu ondoren Ezkioko Udalak 204 mila euroko aurrezki ahalmena izango du.** 330 eta 610 biztanle artean dituzten Gipuzkoako 8 udalerrien 2009-2013 urteetako batez besteko sarrera arruntak 501 mila eurokoak dira.

**14. Taula. Ezkio-Itsasoko 2009-2013 arteko aurrekontuaren, Itsasorako estimatutako aurrekontuaren eta Ezkiorako estimatutako aurrekontuaren adierazle ekonomiko orokorrak.**

Adierazle ekonomikoa	Ezkio-Itsaso (2009-2013)		Itsaso		Ezkio		Ezkio eta Itsaso (bi udalerrri)		Aldaketa	
	€	€/bizt.	€	€/bizt.	€	€/bizt.	€	€/bizt.	€	€/bizt.
Gastu arruntak	<b>723.737 €</b>	1.188,4	<b>206.954 €</b>	1.309,8	<b>568.556 €</b>	1.260,7	<b>775.510 €</b>	1.273,4	51.773 €	7,2
Ohiko sarrerak	<b>956.191 €</b>	1.570,1	<b>269.529 €</b>	1.705,9	<b>773.017 €</b>	1.714,0	<b>1.042.546 €</b>	1.711,9	86.354 €	9,0
Aurrezki ahalmen gordina	<b>232.593 €</b>	381,9	<b>62.575 €</b>	396,0	<b>204.461 €</b>	453,4	<b>267.036 €</b>	438,5	34.442 €	14,8
Aurrezki ahalmen garbia	<b>220.722 €</b>	362,4	<b>62.575 €</b>	396,0	<b>204.461 €</b>	453,4	<b>267.036 €</b>	438,5	46.313 €	21,0

*Iturria: Siadeco, 2014.*

## 5 ONDASUN BANAKETARAKO PROZEDURA

Ezkio-Itsaso Udalerriko zati bat bereizi eta Itsaso Udalerria eratzeko bereizketa prozesua gertatzen denean, udalerrri independente berri bat eratuko da; ondasunen eta indarrean egon daitezkeen betebeharren banaketa Ezkio eta Itsasoren artean nola egin, hitzarmen batean jaso beharko da; hitzarmen horretarako hainbat zehaztasun eta irizpideri buruzko lehen proposamena jasotzen da jarraian.

### 5/1 ONDASUN ETA BETEBEHARREN BANAKETARAKO IRIZPIDE OROKORRAK

- 1. Irizpide orokorra: banaketa proportzionala, orekatua eta bi udalerrientzat ekonomikoki bideragarria izateko irizpidea.**

Ezkio-Itsasoko Udalak orain dituen alde batetik ondasun, eskubide eta erabilera-aprobetxamenduen eta bestetik, betebeharrak, zor eta finantza kargen banaketa egiterakoan, ziurtatu egin beharko da, bi udalerrietako edozein ez dela banaketa horren ondorioz modu ez justu batean aberatsago edo pobregara bihurtuko.

Bi udalerrien arteko ondasun eta betebeharren banaketa proportzionalki eta modu orekatuan egiteko adostu daitezkeen diru-ordainketa eta bestelako betebeharrak ekonomikoak, bi udalerritako edozeinentzat ekonomikoki bideragarriak direla ere ziurtatu beharko da.

- 2. Biztanleria irizpidea: ondarearen balorazio ekonomikoarekiko udalerrri bakoitzari dagokion zatia zehazteko, biztanleria irizpidea erabiliko da.**

Ezkio-Itsasoko Udalaren gaur egungo aktibo eta pasibotik bi udalerrien artean banatu beharrekoa zein izango den behin zehaztu ondoren, banatu beharrekoaren balorazio ekonomiko bat egingo da eta termino ekonomikoetan udalerrri bakoitzari dagokion zenbatekoa, udalerrri bakoitzeko biztanleriaren arabera finkatuko da.

**3. Lurraldetasun irizpidea: udalerrri bakoitzaren pekoak izango dira, bere lurralde eremuan kokatuak dauden ondasunak, aprobetxamendu eskubideak eta ondasun horiei loturiko karga eta betebeharrak finantzarioak.**

Itsaso udalerrri berriko Udalaren eskutara pasako dira Itsasoko lurretan kokatuak dauden Ezkio-Itsasoko Udalaren jabetzako ondasun material guztiak. Ezkioko Udalaren jabetzakoak izango dira berriz, Ezkioko lurretan kokatutakoak. Ondasun horien besterenganatzea, eduki ditzaketen zor eta finantza betebeharrei lotua egongo da.

**4. Ondasun materialen balorazio ekonomikorako irizpidea: Ezkio-Itsasoko Udalaren 1994ko inbentarioko balorazio ekonomikoak eta 1994tik 2014ra ondasun materialetan eginiko inbertsio errealak.**

Lurraldetasun irizpidea aplikatuz udalerrri bakoitzarenak izango diren ondasun materialen balorazio ekonomikoa egiteko, ondoko prozedura aplikatuko da:

- Udalerrriaren araberrako balorazio ekonomikoa egiteko kontuan hartuko diren ondasun materialak honakoak izango dira: udalaren jabetzakoak diren eraikinak eta azpiegiturak, gaur egun herritarrei eraikin horietan zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen diren material eta ondasunak (altzariak, informatika azpiegiturak...), eraikinen lurzoruak, urbanizatu gabeko lursailak eta nagusiki herri lan eta brigada lanetarako erabilitako ondasun higigarriak (traktorea, elurra kentzeko tresna, karpa...). Balorazio ekonomikoa egiterakoan aurreikusi da ezingo direla honako ondasun-motak kontuan hartu: urbanizatutako lursailak, herri bideak, argiteria publikoa eta ur hornidura sarea; 1994ko udalaren inbentarioan zerrendatutako ondasun-mota horietatik gehienek balorazio ekonomikorik ez dutelako edota geroztik ondasun-mota horietan egindako hobekuntza lanen balorazio ekonomikoaren Ezkio eta Itsasoren arteko banaketa zehazki egin ahal izateko informaziorik ez dagoelako.
- Ezkio-Itsasoko Udalak 1994ean eginiko udal ondasunen inbentarioko datuak erabiliz, udalerrri bakoitzean kokatzen diren ondasun materialen balorazio ekonomikoa egingo da.
- Jarraian, ondasun material horietan Ezkio-Itsasoko Udalak 1994tik 2014ra arte egindako inbertsio errealen zenbatekoa kontuan hartuko da, beti ere, eraikin eta azpiegitura horiek gaur egun duten erabilera motarekin lotura duten hobekuntza lan eta material erosketekin loturiko inbertsioak.

- Hirugarrenik, 1994tik 2014ra Ezkio-Itsasoko Udalak lurralde eremu batean eta bestean eginiko inbertsio errealak ere kontuan hartuko dira, zehazki, 1994ko inbentarioa egin geroztik erositako eraikin eta lursailei dagozkienak.
- Laugarrenik, kontuan hartutako ondasun material eta inbertsio erreal horiei loturiko zor eta finantza kargak ere kontuan hartuko dira.
- Aurreko urratsak jarraituz, udalerrri bakoitzaren lur eremuan kokatutako ondasun materialen balorazio ekonomikoa kalkulatu da.

**5. Konpentsazio ekonomikorako irizpidea: lurraldetasun irizpidea eta biztanleria irizpidearen artean egon litekeen desoreka doitzeko irizpidea.**

Ondasun materialen banaketa, lurraldetasun irizpidea erabiliz edo ondasunen kokapenaren arabera egingo denez, udalerrri bakoitzarenak izango diren ondasunen balorazio ekonomikoa kalkulatu da eta biztanleria irizpidearen arabera udalerrri bakoitzari dagokion balorazio ekonomikoarekin alderatu. Udalerrri bakoitzaren jabetzakoak izango diren ondasunen balio ekonomikoa (finantza kargak ere kontuan hartuta) eta biztanleriaren arabera udalerrri bakoitzari dagokion balio ekonomikoaren arteko aldea, udalerrri batek besteari egin beharreko konpentsazio ekonomikoa izango da. Biztanleria irizpidearen arabera, termino ekonomikoetan dagokion baino ondasun gehiagorekin geratzen den udalerrriak, dagokiona baino ondasun gutxiagorekin geratzen den udalerrriari konpentsazio ekonomiko bat ordaindu beharko dio.

**6. Ezkio-Itsasoko Udalaren diruzaintzako gerakinaren banaketa: biztanleria irizpidearen arabera .**

Biztanleriaren arabera banatuko da bi udalerrrien artean Ezkio-Itsasoko Udalak aurreko ekitaldi itxietatik daukan diruzaintzako gerakina; kontuan hartuko diren erreferentziako datuak, hau da, biztanleria ratioa eta diruzaintzako gerakinaren zenbatekoa, udalerrrien bereizketaren unekoak izango dira.

**7. Udalergi arteko transferentzia-betebeharren zenbatekoa: konpentsazio ekonomikoren eta diruzaintzako gerakinaren banaketari dagozkion ordainketen batura.**

Udalergi arteko transferentzia-betebeharren zenbatekoa, konpentsazio ekonomikorako kalkulaturako zenbatekoa eta diruzaintzako gerakinaren banaketarako zehazturako zenbatekoa batuta kalkulaturako da.

**8. Udalergi arteko transferentzia-betebeharren likidaziorako epeak: ordainketak egin behar dituen udalgerriaren aurrezki ahalmena kontuan hartuta, udalergi arteko transferentzia-betebeharrak epeka ordaintzeko neurriak hartuko dira.**

Udalgerrien arteko bereizketaren unean zehazturako da ondare banaketagatik eta diruzaintzako gerakinagatik guztira zenbatekoa izango den udalergi batek besteari transferitu beharrekoa. Ordea, transferentzia-betebehar horiek epeka likidatzeko neurriak hartuko dira, ordainketa horiek egitearen ondorioz, ordainketak egin behar dituen udalaren aurrezki ahalmenaren % 30 baino gehiago izan ez dadin beste udalari transferitu beharreko kopurua. Udal transferentzia egileak urte bakoitzean likidatu beharreko zenbatekoa, aurreko hiru urteetan udal horrek batez beste lortutako aurrezki gordinaren % 30 izango da, urterik urte egindako ordainketekin transferentzia-betebeharren zenbatekoa guztiz ordaintzera iritsi arte.

## 5/2 ONDASUNEN BANAKETARAKO IRIZPIDE ETA PROZEDURAREN APLIKAZIOA

- ➔ Biztanleria irizpidea (Udal erroldako datuak, 2013ko abenduak 31):

15. Taula. Itsaso eta Ezkioko biztanleria.

Eremua	Biztanleria	%
Itsaso	158	25,9
Ezkioko	451	74,1
<b>Ezkioko-Itsaso</b>	<b>609</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Ezkioko-Itsasoko Udala, 2014.*

- ➔ Lurraldetasun irizpidea: kokapenaren arabera ondasun materialen udalerrirarteko banaketa eta balorazio ekonomikoa:

**Itsasoko ondasun materialen zerrenda, horien balorazio ekonomikoa eta egin diren inbertsioak:**

**16. Taula. Itsasoko eraikin eta azpiegituren balorazioa.**

ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK					
ITSASO					
Elementuaren deskribapena	1994ko inbentarioaren araberako balorazio ekonomikoa (€)	Bestelako balorazio ekonomikoa (€)	Egindako inbertsioaren deskribapena	Egindako inbertsioaren zenbatekoa (€)	Balorazio eguneratua (€)
Goiko Ostatua	114.662,29				<b>114.662,29</b>
Goiko Ostatuko Plaza	7.969,42				<b>7.969,42</b>
Itsasoko hilerria	0,00		<i>Itsasoko kanposanturako eskailerak [2010]</i>	6.035,66	<b>9.054,18</b>
			<i>Itsasoko hilerrian konponketak [2014]</i>	3.018,52	
Itsasoko Ostatua	255.880,90		<i>Itsasoko Ostatuaren zaharberritzea [1997]</i>	87.146,76	<b>389.552,67</b>
			<i>Itsasoko Ostatuan komuna [2001]</i>	6.010,12	
			<i>Itsasoko Ostatuan leihoak [2008]</i>	4.329,73	
			<i>Itsasoko Ostatuan argiak [2014]</i>	3.539,25	
			<i>Itsasoko Ostatua [2014]</i>	32.645,91	
Eskola Nazionalaren eraikina	63.373,78		<i>Itsasoko auzoan lokala egokitzea [2004]</i>	10.900,00	<b>74.273,78</b>
Itsasoko Plaza (Ostatuaren ondoan)	21.507,22		<i>Itsasoko haur parkea [1998]</i>	8.103,77	<b>53.383,74</b>
			<i>Itsasoko Ostatuan jolaslekua [2002]</i>	14.167,99	
			<i>Itsasoko Ostatuan jolaslekua [2003]</i>	9.604,76	
Eskola Nazionalaren eraikina (Alegiko Elkartea)	66.308,10		<i>Zelai ondo elkartea [2011]</i>	499,48	<b>66.807,58</b>
Frontoia	197.985,09		<i>Alegiko frontoiaren honorarioak [1995]</i>	7.625,55	<b>213.882,82</b>
			<i>Alegiko frontoiaren honorarioak [1996]</i>	237,78	
			<i>Itsaso-Alegiko frontoian lanak [2013]</i>	8.034,40	
Alegiko Plaza (frontoia eta Eskola Nazionalaren ondoan)	23.831,63		<i>Alegi eta Itsasoko haur parkeak [2013]</i>	2.673,27	<b>26.504,90</b>
<b>GUZTIRA ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK</b>	<b>751.518,43</b>	<b>0,00</b>		<b>204.572,95</b>	<b>956.091,38</b>

*Iturria: IDOM, 1994; Ezkio-Itsasoko Udala, 2014; Siadecok landua.*

17. Taula. Itsasoko eraikinari loturiko lurzorua balorazioa.

ERAIKINARI LOTURIKO LURZORUA					
ITSASO					
Elementuaren deskribapena	1994ko inbentarioaren araberako balorazio ekonomikoa (€)	Bestelako balorazio ekonomikoa (€)	Egindako inbertsioaren deskribapena	Egindako inbertsioaren zenbatekoa (€)	Balorazio eguneratua (€)
Lurzoru librea (Itsasoko Ostatua)	13.333,45				13.333,45
Lurzoru librea (Eskola Nazionalaren erakina)	15.249,18				15.249,18
Lurzoru librea (Frontoia)	7.739,53				7.739,53
<b>GUZTIRA ERAIKINARI LOTURIKO LURZORUA</b>	<b>36.322,16</b>	<b>0,00</b>		<b>0,00</b>	<b>36.322,16</b>

Iturria: IDOM, 1994; Ezkio-Itsasoko Udala, 2014; Siadecok landua.

18. Taula. Itsasoko eraikinei loturiko materialaren balorazioa.

ERAIKINEI LOTURIKO MATERIALA					
ITSASO					
Elementuaren deskribapena	1994ko inbentarioaren araberako balorazio ekonomikoa (€)	Bestelako balorazio ekonomikoa (€)	Egindako inbertsioaren deskribapena	Egindako inbertsioaren zenbatekoa (€)	Balorazio eguneratua (€)
			<i>Itsasoko Ostatuko material gastuak [2001]</i>	4.032,19	<b>13.994,54</b>
			<i>Itsasoko Ostaturako makinaria [2006]</i>	2.845,00	
			<i>Itsasoko ostaturako aulki berriak [2010]</i>	5.258,40	
			<i>Itsasoko ostaturako ontzigarbitzailea [2012]</i>	1.858,95	
<b>GUZTIRA ERAIKINEI LOTURIKO MATERIALA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>		<b>13.994,54</b>	<b>13.994,54</b>

Iturria: IDOM, 1994; Ezkio-Itsasoko Udala, 2014; Siadecok landua.

19. Taula. Itsasoko urbanizatu gabeko lursailen balorazioa.

LURSAILAK (URBANIZATU GABEAK)					
ITSASO					
Elementuaren deskribapena	1994ko inbentarioaren araberako balorazio ekonomikoa (€)	Bestelako balorazio ekonomikoa (€)	Egindako inbertsioaren deskribapena	Egindako inbertsioaren zenbatekoa (€)	Balorazio eguneratua (€)
AIU-4.2ko lursaila		42.000,00			42.000,00
<b>GUZTIRA LURSAILAK (URBANIZATU GABEAK)</b>	<b>0,00</b>	<b>42.000,00</b>		<b>0,00</b>	<b>42.000,00</b>

Iturria: IDOM, 1994; Ezkio-Itsasoko Udala, 2014; Siadecok landua.



**Ezkioko ondasun materialen zerrenda, horien balorazio ekonomikoa eta egin diren inbertsioak:**

**20. Taula. Ezkioko erakin eta azpiegituren balorazioa.**

ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK					
EZKIO					
Elementuaren deskribapena	1994ko inbentarioaren arabeko balorazio ekonomikoa (€)	Bestelako balorazio ekonomikoa (€)	Egindako inbertsioaren deskribapena	Egindako inbertsioaren zenbatekoa (€)	Balorazio eguneratua (€)
Argindegi etxea (Ostatua)	107.469,08		<i>Ezkioko Ostatuan komunak egokitzea [2004]</i>	6.000,00	154.036,92
			<i>Ezkioko Ostatuko komunak [2005]</i>	7.975,32	
			<i>Ezkioko argindegi ostatua 2008]</i>	24.000,00	
			<i>Ezkioko Ostatuko argiak [2014]</i>	2.446,62	
			<i>Argindegi ostatua -osagarria [2009]</i>	6.145,90	
Ezkioko Plaza	4.853,17		<i>Ezkion parkea [2007]</i>	15.000,00	281.031,95
			<i>Kirol ekipamendua [2008]</i>	20.000,00	
			<i>Kirol ekipamendua eraikitzea [2009]</i>	100.800,00	
			<i>Kirol ekipamendua eraikitzea [2010]</i>	14.453,20	
			<i>Estatu fondoa - Ezkio plazoleta</i>	114.057,73	
<i>Ezkioko auzoko frontoia [2012]</i>	11.867,85				
Eskola Nazionalaren eraikina	45.352,61				45.352,61
Ezkioko hilerria	-	Ezin izan da baloratu			0,00
Argindegi Ostatuaren ondoko eraikina	-	Ezin izan da baloratu			0,00
Santa Lutzi Zahar	361.020,46		<i>Kultur etxeko teilatua [2000]</i>	26.187,70	1.399.829,23
			<i>Santa Lutzi Zahar etxean lanak [2004]</i>	60.000,00	
			<i>Santa Lutzi zahar etxean lanak [2005]</i>	57.226,58	
			<i>Santa Lutzi zahar etxean lanak [2006]</i>	217.159,92	
			<i>Santa Lutzi zahar etxean lanak [2007]</i>	82.092,39	
			<i>Santa Lutzi zahar etxean lanak [2008]</i>	120.000,00	
			<i>Santa Lutzi zahar etxean lanak [2009]</i>	394.276,65	
			<i>Santa Lutzi zahar etxean lanak [2010]</i>	63.028,79	
			<i>Santa Lutzi zahar etxean lanak [2012]</i>	1.620,50	
<i>Herri-eskola egokitzea [2014]</i>	17.216,24				
Santa Lutziko eskola nazionala	45.352,61		<i>Anduaga elkarteko eraikineko obrak [2008]</i>	36.000,00	82.500,85
			<i>Anduaga elkarteko eraikineko obrak [2009]</i>	1.148,24	
Santa Lutziko plaza	7.841,71		<i>Santa Lutziko jolasleku eta apa [2004]</i>	101.031,97	110.745,65
			<i>Santa Lutzi Anduagan toka lekua [2011]</i>	1.871,97	
Udaletxe zaharra	259.093,31		<i>Udaletxe inguruko plaza [1999]</i>	20.771,36	346.383,45
			<i>Udaletxe zaharraren egokitzapen [2014]</i>	66.518,78	

ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK					
EZKIO					
Elementuaren deskribapena	1994ko inbentarioaren araberako balorazio ekonomikoa (€)	Bestelako balorazio ekonomikoa (€)	Egindako inbertsioaren deskribapena	Egindako inbertsioaren zenbatekoa (€)	Balorazio eguneratua (€)
Mediku etxea	216.464,25		<i>Mediku kontsultategia [1995]</i>	23.053,96	276.625,83
			<i>Osasun etxearen etxebizitza [1998]</i>	37.107,62	
Ezkioko amabirjinaren aterpea		Ezin izan da baloratu			0,00
Lokala (Errekabarrena, 5)		57.525,38	<i>Haurreskola berria [2012]</i>	10.483,52	145.008,13
		57.098,10	<i>Haurreskola berria - osagarria [2013]</i>	19.901,13	
Industri guneko lokala		130.491,75	<i>Udalaren lokalak egokitzea [2008]</i>	6.000,00	136.491,75
<b>GUZTIRA ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK</b>	<b>1.047.447,20</b>	<b>245.115,23</b>		<b>1.685.443,94</b>	<b>2.978.006,37</b>

Iturria: IDOM, 1994; Ezkio-Itsasoko Udala, 2014; Siadecok landua.

#### 21. Taula. Ezkioko eraikinari loturiko lurzoruaren balorazioa.

ERAIKINARI LOTURIKO LURZORUA					
EZKIO					
Elementuaren deskribapena	1994ko inbentarioaren araberako balorazio ekonomikoa (€)	Bestelako balorazio ekonomikoa (€)	Egindako inbertsioaren deskribapena	Egindako inbertsioaren zenbatekoa (€)	Balorazio eguneratua (€)
Lurzoru librea (Argindegi etxea eta Eskola Nazionala)	42.707,92				42.707,92
Lurzoru librea (Mediku etxea)	8.224,85				8.224,85
<b>GUZTIRA ERAIKINARI LOTURIKO LURZORUA</b>	<b>50.932,77</b>	<b>0,00</b>		<b>0,00</b>	<b>50.932,77</b>

Iturria: IDOM, 1994; Ezkio-Itsasoko Udala, 2014; Siadecok landua.

**22. Taula. Ezkioko eraikinei loturiko materialaren balorazioa.**

<b>ERAIKINEI LOTURIKO MATERIALA</b>		
<b>EZKIO</b>		
<b>Egindako inbertsioaren deskribapena</b>	<b>Egindako inbertsioaren zenbatekoa (€)</b>	<b>Balorazio eguneratua (€)</b>
<i>Sendagilearen kontsultarako berogailua [2008]</i>	433,53	28.827,05
<i>Argazki makina digitala [2009]</i>	233,16	
<i>Ezkioko Ostaturako materiala [2010]</i>	4.934,80	
<i>Liburutegirako ordenagailua [2010]</i>	1.177,64	
<i>Ordenagailu berria [2010]</i>	621,76	
<i>TDT lokalak ekipamendua [2011]</i>	5776,1	
<i>Ordenagailu berria [2011]</i>	5162,5	
<i>Ezkioko Ostaturako materiala [2011]</i>	4.057,00	
<i>Liburutegirako ordenagailua [2011]</i>	1508,04	
<i>Mahaiak [2011]</i>	698,56	
<i>Udal bulegorako makina destr. [2012]</i>	467,28	
<i>Inprimagailua [2012]</i>	82,6	
<i>Ezkioko ostatua ontzigarbigailua [2013]</i>	1619,5	
<i>Liburutegirako ordenagailua [2013]</i>	586,85	
<i>Haurreskola berriko platergarbitzailea [2013]</i>	390,83	
<i>Udal liburutegirako ordenagailua [2014]</i>	1076,9	
<b>GUZTIRA ERAIKINEI LOTURIKO MATERIALA</b>	<b>28.827,05</b>	<b>28.827,05</b>

*Iturria: IDOM, 1994; Ezkio-Itsasoko Udala, 2014; Siadecok landua.*

23. Taula. Ezkioko ondasun higigarrien balorazioa.

ONDASUN HIGIGARRIAK					
EZKIO					
Elementuaren deskribapena	1994ko inbentarioaren araberako balorazio ekonomikoa (€)	Bestelako balorazio ekonomikoa (€)	Egindako inbertsioaren deskribapena	Egindako inbertsioaren zenbatekoa (€)	Balorazio eguneratua (€)
Ibilgailua (Nissan Pikup)		3.860,00			138.570,84
Ibilgailuaren atoaia (erremolkea)		Ezin izan da baloratu			
Traktorea		43.889,12			
Traktorearen desbrozadora		22.697,18			
Traktorearen atoaia (erremolkea)		7.142,86			
Abonadora (gatza banatzeko)		2.146,00			
Elurra kentzeko tresna		2.440,11			
Elurra kentzeko tresna		13.977,32			
Desbrozadora		Ezin izan da baloratu			
Desbrozadora		Ezin izan da baloratu			
Desbrozadora		775,00			
Desbrozadora haizezkoa		700,00			
Karpa		17.748,00			
Oholtza		9.736,12			
Belarra mozteko makina		3.753,18			
Belarra mozteko makina		1.399,97			
Hormigonera		610,02			
Argindar generadorea		830,00			
Rotaflesa		Ezin izan da baloratu			
Taladroa		180,00			
Puxkatzeko mailu elektrikoa		1.899,05			
Rotafles txikia		98,03			
Zerra		562,65			
Kalatzeko zerra		110,00			
Motozerra		659,00			
Setoak moztekoa		319,00			
Soldeatzeko makina		310,00			
Torniloak lotzekoa		135,07			
Microchip irakurgailua		230,00			
Karcher		605,00			
Hodi libragailua		399,30			
Lijadora		408,20			
Engrasadorea		283,44			
Fresadora		272,29			
Balantza		394,93			
<b>GUZTIRA ONDASUN HIGIGARRIAK</b>	<b>0,00</b>	<b>138.570,84</b>		<b>0,00</b>	<b>138.570,84</b>

Iturria: IDOM, 1994; Ezkio-Itsasoko Udala, 2014; Siadecok landua.

**24. Taula. Ezkioko urbanizatu gabeko lursailen balorazioa.**

<b>LURSAILAK (URBANIZATU GABEAK)</b>					
<b>EZKIO</b>					
Elementuaren deskribapena	1994ko inbentarioaren arabeko balorazio ekonomikoa (€)	Bestelako balorazio ekonomikoa (€)	Egindako inbertsioaren deskribapena	Egindako inbertsioaren zenbatekoa (€)	Balorazio eguneratua (€)
Atzurtzako lursaila		Ezin izan da baloratu			84.141,69
Etxeberrialdeko etxeen atzekaldeko lursaila		84.141,69			
<b>GUZTIRA LURSAILAK (URBANIZATU GABEAK)</b>	<b>0,00</b>	<b>84.141,69</b>		<b>0,00</b>	<b>84.141,69</b>

*Iturria: IDOM, 1994; Ezkio-Itsasoko Udala, 2014; Siadecok landua.*

➔ Konpentsazio ekonomikoaren zenbatekoa:

Udalerrri bakoitzean kokatutako ondasun elementuen balorazio ekonomikoa eta biztanleria irizpidearen arabera (Itsasori % 25,9 dagokiola) Itsasori dagokion konpentsazio ekonomikoa ondorengoak dira:

**25. Taula. Itsasoko eta Ezkioko ondasuneko elementu ezberdinen balorazioa eta Itsasori dagokion konpentsazio ekonomikoa**

Elementuaren deskribapena	Balorazio eguneratua EZKIO (€)	Balorazio eguneratua EZKIO (%)	Balorazio eguneratua ITSASO (€)	Balorazio eguneratua ITSASO (%)	Itsasori dagokion konpentsazio ekonomikoa
GUZTIRA ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK	2.978.006,37	75,70	956.091,38	24,30	62.839,94
GUZTIRA ERAIKINARI LOTURIKO LURZORUA	50.932,77	58,37	36.322,16	41,63	-13.723,13
GUZTIRA ERAIKINEI LOTURIKO MATERIALA	28.827,05	67,32	13.994,54	32,68	-2.903,75
GUZTIRA ONDASUN HIGIGARRIAK	138.570,84	100,00	0,00	0,00	35.889,85
GUZTIRA LURSAILAK (URBANIZATU GABEAK)	84.141,69	66,70	42.000,00	33,30	-9.329,30
<b>Guztira</b>	<b>3.280.478,72</b>	<b>75,78</b>	<b>1.048.408,08</b>	<b>24,22</b>	<b>72.773,60</b>

*Iturria: Siadeco, 2014.*

Lurraldetasun irizpidea eta biztanleria irizpidearen arabera ondasun materialen banaketan dagoen desoreka 72.773,60 eurokoa da; beraz, kopuru hori da ondasun materialen banaketatik Ezkioko Udalak Itsasoko Udalari egin beharreko konpentsazio

ekonomikoaren zenbatekoa. Edonola ere, kopuru hori eguneratu egin beharko da segregazioa gauzatzen den unean eta txosten honen "5.1" ataleko prozedura jarraituz.

- ➔ Ezkio-Itsasoko Udalaren diruzaintzako gerakinaren banaketa (2014ko abenduak 31), biztanleria irizpideari jarraiki:

Ezkio-Itsasoko Udalaren 2014ko abenduak 31ko diruzaintzako gerakina, 1.063.522,04 €koa izanik, gerakinaren biztanleriaren araberrako banaketa ondorengoa izango litzateke:

**26. Taula. Ezkio-Itsasoko Udalaren diruzaintzako gerakinaren banaketa Itsaso eta Ezkio artean.**

Udalerrria	Diruzaintzako gerakinaren zenbatekoa
Itsaso (% 25,9)	275.877,62
Ezkio (% 74,1)	787.644,42
<b>Ezkio-Itsasoko Udalaren diruzaintza gerakina</b>	<b>1.063.522,04</b>

*Iturria: Udalgida, 2014; Siadecok landua.*

- ➔ Itsasoko udal entitate berriari guztira transferitu beharrekoa:

**27. Taula. Itsasoko udal entitate berriari guztira transferitu beharrekoa.**

	Diruzaintzako gerakinaren zenbatekoa
Konpentsazio ekonomikoaren zenbatekoa	72.773,60
Diruzaintzako gerakinaren banaketa	275.877,62
<b>Guztira transferitu beharrekoa</b>	<b>348.651,22</b>

*Iturria: Siadeco, 2014.*

- ➔ Transferentzia-betebeharren likidaziorako aurreikusitako epeak:

Ordainketarako epe eta zenbatekoen aurreikuspena:

**1. ordainketa:**

Epea: Itsasok Ezkio-Itsasoko udalerritik bereizi eta bi hilabete igaro aurretik

Zenbatekoa: 97.231,20 €

**2. ordainketa:**

Epea: segregazioaren unetik 12 hilabete igaro aurretik

Zenbatekoa: 78.052,73 €

**3. ordainketa:**

Epea: segregazioaren unetik 2 urte igaro aurretik

Zenbatekoa: 66.964,70 €

**4. ordainketa:**

Epea: segregazioaren unetik 3 urte igaro aurretik

Zenbatekoa: 64.151,50 €

**5. ordainketa:**

Epea: segregazioaren unetik 4 urte igaro aurretik

Zenbatekoa: 42.251,10 €

**28. Taula. Transferentzia-betebeharren epe bakoitzerako zenbatekoen aurreikuspena.**

Ordainketa	Ordainketaren zenbatekoa	Ordainketen zenbateko metatua	Transferitzeko gelditzen den zenbatekoa
1. ordainketa	<b>97.231,20</b>	97.231,20	237.288,80
2. ordainketa	<b>78.052,73</b>	175.283,93	159.236,08
3. ordainketa	<b>66.964,70</b>	242.248,63	92.271,38
4. ordainketa	<b>64.151,50</b>	306.400,13	28.119,88
5. ordainketa	<b>42.251,10</b>	348.651,22	0,00
<b>Guztira transferitu beharrekoa</b>	<b>348.651,22</b>		

*Iturria: Siadeco, 2014.*

## 6 EZKIO ETA ITSASOKO UDALEK PARTEKA

### DITZAKETEN ZERBITZU ETA BALIABIDEAK FINANTZATZEKO IRIZPIDEAK

Ezkio eta Itsaso, bi udalerrri independente direnean, bi udalen artean zenbait zerbitzu era amankomunatuan kudeatu eta baliabideak partekatu ahal izateko aukerak aztertu eta adostasunak bilatu beharko dira. Atal honetan, bi udalek partekatuko dituzten giza baliabide eta baliabide teknikoek lotutako gastuak nola finantzatuko diren eta zein prozedura jarraituko den zehazten da:

1. Bi udalerrrien artean adostuko da eta hitzarmen batean jaso, partekatu beharreko zerbitzuak zein izango diren, zerbitzu horien ezaugarriak, zerbitzua emateko behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta azpiegiturak, zerbitzuaren ohiko funtzionamendu gastuak eta zerbitzuari loturiko inbertsioak finantzatzeko modua eta zerbitzu-motaren arabera garrantzitsuak diren bestelako alderdiak:
  - Zerbitzuaren ordutegia.
  - Zerbitzuaren kokapena.
  - Zerbitzuaren funtzionamendu gastuak, inbertsio aurreikuspenak eta finantzaketa modua.
  - Hitzartutako baldintza horien berrikuspena zein epetara egingo den eta zerbitzu amankomunatuaren iraupena zein izango den.
2. Zerbitzuaren finantzaketari dagokionean, bereizi egingo dira:
  - Alde batetik, **zerbitzuaren ohiko funtzionamenduari dagozkion gastuak** (I. kapituluko pertsonal gastuak eta II. kapitulutik egindako erosketa, mantenu eta konponketa gastuak).
  - Eta bestalde, **zerbitzua hobetzeko egiten diren inbertsio gastuak (VI. kapitulua)** eta inbertsio horien finantzaketari lotuak dauden maileguz finantza gastuak (III. kapitulua).
3. Zerbitzuaren ohiko funtzionamenduari loturiko gastuak, zerbitzuaren erabiltzaile diren herrietako udalen artean finantzatuko dira; udalerrri bakoitzak ordaindu beharreko zatia, biztanleria ratioaren arabera izango da. Edonola ere, zerbitzuaren kokapena, bestelako ezaugarri eta herri bakoitzeko erabiltzaile kopuruaren arabera, biztanleria ratioa ez den bestelako irizpideen arabera ordainketa horiek egitea ere adostu ahal izango da udal ezberdinen artean.



4. Zerbitzuak hobetzeko helburuarekin eraikin, azpiegitura edo baliabide teknikoetan egiten diren inbertsioak finantzatzeko berriz, ondoko prozedura jarraituko da:
- a) Eraikin, azpiegitura edo baliabide teknikoetarako inbertsioak, bi udaletako edozeinek egin ahal izango ditu, Ezkiokoak edo Itsasokoak.
  - b) Erositako eraikin, azpiegitura edo ondasun higigarrien jabetza, inbertsioa egiten duen udalarena izango da.
  - c) Eraikin, azpiegitura edo ondasun higigarri horiek udalari ezberdinetan zerbitzua emateko erabiltzen direnean, ondasun bakoitzaren urteko amortizazio edo depreziazio gastua kalkulatu da, eta biztanleria ratioaren arabera, gastu horren zati bat, ondasun horren jabea den udalari ordaindu beharko dio, egindako inbertsioaren ordainketan parterik hartu ez duen udalak. Partekatutako baliabideen urteko amortizazio gastua ezartzeko, amortizazio koefiziente eta amortizazio epeen taula ofizialak erabiliko dira.
  - d) Inbertsioari loturiko mailegurik balego, urte bakoitzeko finantza gastuak ere udal ezberdinen artean finantzatu dira biztanleria ratioaren arabera.
5. Baliabideak partekatuz udal ezberdinen artean kudeatutako zerbitzu amankomunatuaren udal arteko ordainketak egiterakoan, kontuan hartuko dira beraz: ohiko funtzionamendu gastuak, erabilitako eraikin, azpiegitura eta bestelako baliabideetan eginiko inbertsioen urteko amortizazio gastuak eta inbertsioen finantzaketari loturiko maileguen urteko interes gastuak.

# 7 ITSASOREN SEGREGAZIORAKO URRATSAK, BALIABIDEAK ETA FINANTZAKETA-PLANA

## 7/1 SEGREGAZIO PROZESUAREN PLANIFIKAZIORAKO URRATSAK ETA HIPOTESIAK

### 7/1/a FORU DEKRETU BIDEZ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ITSASOREN SEGREGAZIOA ONARTU BITARTEKO PROZEDURAREN URRATSAK

- ⇒ Itsaso bherria Elkarreak, Ezkioren bereizketarako eskaera Ezkio-Itsasoko Udalean aurkeztea, Itsasoko auzotarren sinadurekin. Urrats hau dagoeneko gauzatu da.
- ⇒ Ezkio-Itsasoko Udal Batzarrak, Itsaso Ezkio-Itsasotik bereizteko hasierako erabakia hartzea, egitatezko kopuruaren bi herenen eta, beti ere, legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoekin.
- ⇒ Formalizatutako espedientea jendaurrean ipintzea, gutxienez hogeita hamar egunez.
- ⇒ Udalak behin betiko erabakia hartzea eta aurkeztutako erreklamazioak ebatzea, hasierako erabakirako eskatutako udal ordezkarien gehiengo berarekin.
- ⇒ Itsaso segregatzeari buruz itsasoarrek duten iritzia jasotzeko herri kontsulta egitea.
- ⇒ Behar diren agiriez osatutako espedientearen izapidetzea amaitutakoan, espedientea Foru Aldundira bidaltzea.

### 7/1/b FORU DEKRETU BIDEZ ITSASO UDALERRI MODURA ERATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA

Jarraian zehazten diren urrats eta baliabideen planifikaziorako, hipotesi modura, Itsasoren segregazioa Foru Dekretu bidez 2015eko apirilaren 30ean onartua egongo dela eta 2015eko maiatzetik aurrera Itsasoko Udal berria eratu eta antolatu beharko dela ezarri da.

## 7/1/c ITSASOKO UDAL BERRIAREN ERAKETA ETA ANTOLAKETARAKO AURREIKUSITAKO URRATSAK

### ⇒ **Udaletxe modura funtzionatuko duen Itsasoko Udalaren egoitza, bulegoak eta bestelako baliabide teknikoak Itsason ezartzea:**

- Eraikina: Itsasoko Ostatua (taberna gaineko solairua).
- Lokala eraberritu eta altzari berriak ipintzeko aurrekontua: 47.632,74 €
- Finantzaketa: Ezkio-Itsasoko Udalak finantzatuta, segregazioa onartu aurretik inbertsio horiek eginak izatea aurreikusten delako.
- Lanak amaitzeko epea: 2015eko ekaina.

### ⇒ **Itsasoko Udal berriaren administraziorako Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako Batzorde Kudeatzailea eratzea.**

- Prozedura: Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauan xedatutakoari jarraiki eratuko da. Batzorde Kudeatzaile horren eta Itsasoren bereizketarako sortutako Itsaso bherria Elkartearen arteko elkarlana eta koordinazioa ziurtatzea garrantzitsua izango da bestalde.
- Epeak:
  - Batzorde Kudeatzailearen eraketa: 2015eko iraila.
  - Batzorde Kudeatzailea eta Itsaso bherria Elkartearen arteko elkarlana: hurrengo udal hauteskundeetan Itsasoko Udalerako udal ordezkari berriak aukeratu bitartean.

### ⇒ **Itsasoko Udalak bere funtzionamendu propiorako eta zeregin administratiboetarako, teknikoki behar adinako autonomia eta gaitasuna izan arteko epealdi bat ezartzea.**

- Xedea: Itsasoko Udalak bere baliabide propioekin Udalaren funtzionamendua eta herritarrekiko zerbitzuak normaltasun osoarekin garatzera iritsi bitarteko trantsizio epealdi bat adostea Ezkioko Udala eta Itsasoko Udalaren artean.
- Prozedura:
  - Ezkioko Udalaren bi ordezkari eta Itsasoko Udaleko Batzorde Kudeatzaileko beste bi ordezkari osatutako Jarraipen Batzorde bat eratuko da trantsizio epealdi horren jarraipen eta ikuskaritza lanak egiteko.
  - Ezkio-Itsasoko Udalaren gaur egungo lantaldeak, Ezkioko Udalerako eta Itsasoko Udalerako lan egingo du trantsizio epealdi horretan.

- Idazkaritza eta kontuhartzailletza lanpostuetako zeregin eta tramite administratibo guztiak Ezkioko Udala eta Itsasoko Udalaren artean bereizita eramango dira; hala nola, gastu eta sarrera aurrekontuak, gastu eta sarreraren udal kontabilitatea, ordainketa eta diru bilketa zerbitzuak, diruzaintza, udal agiri eta egiaztapenak, eta abar.

- Epea: 8 hilabete, 2015eko maiatzaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra.

⇒ **Ezkioko Udalak, Itsasoren bereizketa Foru Dekretu bidez onartu eta bi hilabete igaro aurretik, 2015 urteari dagokion diru ekarpena egingo dio Itsasoko Udalari.**

- Xedea: Itsasoko Udalaren izenean funtzionatzen hastearekin batera sortuko diren gastuei eta inbertsioei aurre egin ahal izatea.
- Diru ekarpena zehazteko prozedura:
  - Itsasoko Udalari transferitu beharreko zenbatekoaren lehen ordainketa: ondasun materialen banaketagatik Itsasoko Udalak jaso beharreko konpentsazio ekonomikoaren eta Ezkio-Itsasoko Udalak banaketaren unean duen diruzaintzako soberakinetatik Itsasori dagokionaren (biztanleria-ratioaren arabera kalkulatua) lehen ordainketa izango da. Lehen ordainketa horren zenbatekoa, Ezkio-Itsasoko Udalak 2012tik 2014ra, hiru urte horietan lortutako batez besteko Aurrezki Gordinaren %30 izango da. Aurreikusitako zenbatekoa (ikus txosten honen "5/2" atala): **97.231 euro**.

⇒ **Itsaso, Ezkio-Itsaso udalerritik bereizi eta 8 hilabeteko epean, Ezkioko Udaleko eta Itsasoko Udaleko lanpostuak eta udal langileak zein izango diren adostu.**

- Prozedura:
  - Itsasoko Udalak bere ohiko funtzionamendurako giza baliabideen aldetik izango dituen beharren azterketa zehatz bat egin eta udal langileak kontratatzeko jarraitu behar duen prozedura zehaztu.
  - Ezkioko Udala, Itsasoko Udala eta gaur egun Ezkio-Itsasoko Udalekoak diren langileen ordezkariarekin osatutako batzorde bat abian jarri. Batzorde horren helburua, udal bakoitzak dituen beharren arabera, bi udalen artean baliabideak modu efiziente batean partekatuzko planteamendu bat landu eta gaur egungo udal langileen adostasuna lortzea izango da, beti ere gaur egun langile horiek dituzten eskubideak beteko direla bermatuz.
  - Itsasoko Udalak egin beharreko langileen kontrataziorako prozedura abian jarri eta gauzatzea.
- Epeak: 2016ko otsailaren amaierarako.

⇒ **Itsasoko auzo guztietako inbertsio beharrak aztertu eta 2016-2020 epealdirako inbertsio-plana diseinatu.**

- Xedea: Itsasoko auzo ezberdinetan dauden behar eta gabeziei erantzun ahal izateko, epe ertain-luzera diseinatutako inbertsio plan bat izatea itsasoarren artean adostutakoa.
- Prozedura:
  - Itsasok dituen inbertsio beharren azterketa bat egitea, auzo ezberdinen beharrak eta udalerrri modura garapen orekatu bat erdiesteko planteamendua aintzakotzat hartuta.
  - Zerrendatutako inbertsio beharren aurre proiektuak, bideragarritasun teknikoa eta bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostenak egitea.
  - 2016-2020 epealdian gauzatu beharreko lehentasunezko inbertsioak zein izango diren adostea.
  - Inbertsioetarako udalerriz gaindiko erakundeetatik lor litezkeen diru-laguntzen azterketa egin eta 2016-2020 epealdirako finantzaketa-plana zehaztea.
- Epea: 2016ko ekaina.

## **7/2 ITSASOREN SEGREGAZIO PROZESURAKO AURREIKUSITAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA FINANTZAKETA PLANA**

### **7/2/a EZKIO-ITSASOKO UDALAREN ABIAPUNTUKO EGOERA EKONOMIKOA**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Udalgida atariko datuei jarraiki, Gipuzkoako udalen adierazle ekonomiko eta finantzarioak eta Ezkioko Udalarenak aztertuta, garbi ondoriozta daiteke Ezkio-Itsasoko Udalak 2014 urtearen hasieran erakusten zuen kaudimen ekonomikoa eta finantza egoera oso aldekoak direla Itsasoren bereizketa prozesua aurrera eraman ahal izateko. Adierazlerik garrantzitsuenak honakoak:

#### **Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (2013 urtea):**

- Ezkio-Itsasoren balio absolutua: 1.039.039 €.
- Balio erlatiboak (diruzaintza gerakinak sarrera arruntekiko duen pisuaren ehunekoa):
  - Ezkio-Itsaso: % 101,0
  - Gipuzkoa: % 17,2

**Aurrezki gordina** (2013 urtea):

- Ezkio-Itsasoren balio absolutua: 342.924 €.
- Balio erlatiboak (sarrera arruntekin gastu arrunt ez finantzarioei aurre egin ondoren gelditzen den zatiak sarrera arruntekiko hartzen duen pisuaren ehunekoa):
  - Ezkio-Itsaso: % 33,3
  - Gipuzkoa: % 15,5

**Zorpetze muga** (2013 urtea):

- Balio erlatiboak (zama finantzarioa ordaindu ondoren geratzen den aurrezki gordinaren zatia ehunekotan, hau da, autofinantzaketa maila):
  - Ezkio-Itsaso: % 100,0
  - Gipuzkoa: % 59,8

**Zor bizia** (2013 urtea):

- Ezkio-Itsasoren balio absolutua: 0,00 €.
- Balio erlatiboak (Udalak epe luzeko maileguetatik amortizatu gabe duen zatiak sarrera arruntekiko hartzen duen pisuaren ehunekoa):
  - Ezkio-Itsaso: % 0,0
  - Gipuzkoa: % 40,1

**Langileriaren gastuak** (2013 urtea):

- Ezkio-Itsasoren balio absolutua: 272.826 €.
- Balio erlatiboak (udalaren pertsonal gastuei aurre egiteko erabilitako sarrera arrunten portzentajea):
  - Ezkio-Itsaso: % 26,5
  - Gipuzkoa: % 31,5

**Funtzionamendu gastuak** (2013 urtea):

- Ezkio-Itsasoren balio absolutua: 640.472 €.
- Balio erlatiboak (funtzionamendu gastuak ordaintzeko erabilitako sarrera arrunten portzentajea):
  - Ezkio-Itsaso: % 62,3
  - Gipuzkoa: % 79,1

**Zerga ahalmena** (2013 urtea):

- Ezkio-Itsasoren balio absolutua: 83.581 €.
- Balio erlatiboak (udalak berezkoak dituen zergengatik duen diru-bilketa ahalmena biztanleko):
  - Ezkio-Itsaso: 139 €
  - Gipuzkoa: 78 €

**7/2/b ITSASO EZKIO-ITSASOTIK BEREIZTEA ONARTUTAKO URTERAKO (2015 URTEA) GASTU ETA SARRERA AURREIKUSPENAK**

**Gastu eta sarrera aurreikuspenak egiteko erabilitako hipotesiak:**

Jarraian jasotako 2015erako gastu eta sarrera aurreikuspenak, ondoko hipotesiei jarraiki kalkulatu dira:

- ➔ Itsasoren bereizketa 2015eko apirilaren 30ean onartuko dela.
- ➔ 2015. urteko lehen lau hilabeteetan Ezkio-Itsaso udalerrri bakarra izango dela eta aldiz, gainontzeko zortzi hilabeteetan Ezkio eta Itsaso, bi udalerrri ezberdin izango direla.
- ➔ 2015eko maiatzaren 1etik aurrera, Itsaso udalerrri izango bada ere, Itsasoko Udalaren idazkaritza eta kudeaketa administratiboa Ezkio-Itsasoko egungo udal langileen esku egongo dela, Itsasoko Udal berriaren giza baliabideak zein izango diren erabaki arte.

Udal bakoitzarentzat 2015erako gastu eta sarrera aurreikuspenen kalkulua egiteko erabilitako **prozedura**:

**LEHEN ALDIA (2015EKO URTARRILAREN 1ETIK APIRILAREN 30ERA).**

- Udala: Ezkio-Itsasoko Udala (udalerrri bakarra, bereizketaren aurretik).
- Gastu eta sarrera arrunten aurreikuspenak: Ezkio-Itsasoko Udalaren 2009-2013 epealdiko gastu aurrekontu likidatuen batez bestekoak erabiliz, lau hilabeterako egindako gastu aurreikuspenak.
- Kapital gastu eta kapital sarreraren aurreikuspenak: 650.000 euro inguruko inbertsio aurreikuspena ezarri da (600 mila eskola berrirako, 20 mila Itsasoko

Ostatuko lanetarako eta beste 30 mila bestelako inbertsioetarako). Inbertsio erreal horiei lotuta, 200 mila euroko kanpo finantziazioa aurreikusi da (udalerriz gaindiko erakundeetatik, inbertsioak egiteko lortutako diru-laguntzak edota epe luzeko mailegua).

#### **BIGARREN ALDIA (2015EKO MAIATZAREN 1ETIK ABENDUAREN 31RA):**

- Udalak:

##### **Ezkioko Udala:**

- Gastu arruntak: Ezkio-Itsasorentzat egindako gastu aurreikuspenekiko, Ezkiori dagokion biztanleria-ratioa aplikatu (%74,1) eta 8 hilabeterako egindako gastu aurreikuspenak.
- Sarrera arrunten aurreikuspenak: Itsasoren bereizketarako bideragarritasun ekonomikoaren txostenean, Itsaso Ezkio-Itsasotik bereiztu ondoren Ezkioko Udalarentzat egindako sarrera eta gastu arrunten aurreikuspenak erabiliz, 8 hilabeteri dagozkion zenbatekoak.
- Kapital gastu eta kapital sarreraren aurreikuspenak: Ezkioko Udala, Ezkio-Itsasoren diruzaintzako saldoarekin geratuko da eta Ezkioko lurretan kokatuak dauden ondasunekin. Trukean, eguneratu gabeko datuak erabiliz egindako lehen kalkuluen arabera, guztira 348 mila euro inguruko diru ekarpena Itsasoko Udalari egiteko betebeharra izango du. 2015 urtean, Ezkioko Udalak Itsasoko Udalari egin beharreko kapitalerako ekarpena 97.231 eurokoa izango litzateke. Inbertsio errealean VI. Kapitularako, 74.100 euroko inbertsio aurreikuspenak ezarri dira, horietatik gehienak, erabilera orokorretarako azpiegitura lanei dagozkienak (50.388 €).

##### **Itsasoko Udala:**

- Gastu arruntak: Ezkio-Itsasorentzat egindako gastu aurreikuspenekiko, Itsasori dagokion biztanleria-ratioa aplikatu (%25,9) eta 8 hilabeterako egindako gastu aurreikuspenak.
- Sarrera arrunten aurreikuspenak: Itsasoren bereizketarako bideragarritasun ekonomikoaren txostenean, Itsaso Ezkio-Itsasotik



bereiztu ondoren Itsasoko Udalarentzat egindako sarrera eta gastu arrunten aurreikuspenak erabiliz, 8 hilabeteri dagozkion zenbatekoak.

- Kapital gastu eta kapital sarreren aurreikuspenak: Itsasoko Udalak, Ezkio Itsasoren lehen kapital transferentzia jasoko luke, 97.231 eurokoa; bestalde, 22.274 euroko inbertsio errealak exekutatzea aurreikusi da.

## 2015erako aurrekontu aurreikuspenen emaitzak:

### ➔ Gastu arruntak

**29. Taula. 2015erako aurreikusitako gastu arruntak, kapitulua ekonomikoaren arabera.**

Kapitulua ekonomikoa eta artikulua	Ezkio-Itsaso 2015 I. zatia (2015eko urtarrilak 1etik apirilaren 30era)	Ezkioko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)	Itsasoko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)
<b>1. KAPITULUA – PERTSONAL GASTUAK</b>	<b>94.910 €</b>	<b>140.656 €</b>	<b>49.163 €</b>
10 Goi karguak	10.017 €	14.846 €	5.189 €
12 Funtzionarioak eta estatutarioak	29.961 €	44.402 €	15.520 €
13 Pertsonal laborala	22.051 €	32.679 €	11.422 €
14 Beste pertsonala	9.799 €	14.522 €	5.076 €
16 Enplegu emailearen kargurako gizarte kuota, prestazio eta gastuak	23.082 €	34.208 €	11.956 €
<b>2. KAPITULUA - GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN</b>	<b>108.175 €</b>	<b>160.275 €</b>	<b>56.020 €</b>
20 Alokairuak	67 €	99 €	35 €
21 Konponketak, mantenamendua eta artapena	10.952 €	16.230 €	5.673 €
22 Materiala, hornidurak eta bestelakoak	95.643 €	141.743 €	49.543 €
23 Zerbitzuagatiko kalte ordainak	123 €	183 €	64 €
24 Zerbitzu berrien zuzkidura	1.390 €	2.060 €	720 €
<b>3. KAPITULUA – FINANTZA GASTUAK</b>	<b>- €</b>	<b>- €</b>	<b>- €</b>
31 Epe luzerako zorrarenak	- €	- €	- €
<b>4. KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	<b>37.608 €</b>	<b>56.526 €</b>	<b>19.758 €</b>
41 Euskal Autonomia Erkidegoari	534 €	792 €	277 €
42 Lurralde historikoari	22.440 €	33.256 €	11.624 €
48 Familiei eta irabazi xederik gabeko erakundeei	15.168 €	22.479 €	7.857 €
<b>GASTU ARRUNTAK GUZTIRA</b>	<b>240.692 €</b>	<b>357.526 €</b>	<b>124.965 €</b>

Iturria: Siadeco, 2014.

➔ Kapital gastuak:

**30. Taula. 2015erako aurreikusitako kapital gastuak, kapitulu ekonomikoaren arabera.**

Kapitulu ekonomikoa eta artikulua	Ezki-Itsaso 2015 I. zatia (2015eko urtarrilak 1etik apirilaren 30era)	Ezkioko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)	Itsasoko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)
<b>6. KAPITULUA - INBERTSIO ERREALAK</b>	<b>650.000 €</b>	<b>74.100 €</b>	<b>22.274 €</b>
60 Inbertsioa produktziozkoa ez den erabilera orokorrera bideraturiko azpiegitura eta ondasunetan	34.000 €	50.388 €	17.612 €
62 Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari loturiko inbertsioa	607.000 €	10.374 €	-€
64 Gastuak izaera inmaterialeko inbertsioetan	7.000 €	10.374 €	3.626 €
68 Gastuak ondare-ondasunetako inbertsioetan	2.000 €	2.964 €	1.036 €
<b>7. KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK</b>	<b>674 €</b>	<b>998 €</b>	<b>349 €</b>
78 Familiei eta irabazi xederik gabeko erakundeei	674 €	998 €	349 €
<b>9. KAPITULUA – FINANTZA PASIBOAK</b>	<b>- €</b>	<b>97.231 €</b>	<b>- €</b>
91 Epe luzerako zorraren amortizazioa	- €	- €	- €
MAILEGUAREN AMORTIZAZIOA.	- €	- €	- €
93 Epe luzerako maileguen amortizazioa	- €	97.231 €	- €
ITSASOKO UDALARI BEREIZKETAREN KONPENSASIOA: 1 ORDAINKETA	- €	97.231 €	- €
<b>GUZTIRA KAPITAL GASTUA</b>	<b>650.674 €</b>	<b>172.330 €</b>	<b>22.623 €</b>

Iturria: Siadeco, 2014.

➔ **Gastu aurrekontua GUZTIRA:**

**31. Taula. 2015erako aurreikusitako gastu aurrekontu osoa.**

	Ezki-Itsaso 2015 I. zatia (2015eko urtarrilak 1etik apirilaren 30era)	Ezkioko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)	Itsasoko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)
<b>GASTU AURREKONTU OSOA</b>	<b>891.366 €</b>	<b>529.856 €</b>	<b>147.588 €</b>

Iturria: Siadeco, 2014.

➔ Sarrera arruntak:

**32. Taula. 2015erako aurreikusitako sarrera arruntak, kapitulu ekonomikoaren arabera.**

Kapitulu ekonomikoa	Ezkio-Itsaso 2015 I. zatia (2015eko urtarrilak 1etik apirilaren 30era)	Ezkioko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)	Itsasoko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)
1. KAPITULUA. ZUZENEKO ZERGAK	89.600 €	138.520 €	23.779 €
2. KAPITULUA. ZEHARKAKO ZERGAK	19.645 €	20.587 €	7.212 €
3. KAPITULUA. TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	50.333 €	79.940 €	18.183 €
4. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	152.133 €	260.615 €	126.169 €
5. KAPITULUA. ONDARE SARRERAK	7.019 €	15.683 €	4.344 €
<b>GUZTIRA OHIKO SARRERAK</b>	<b>318.730 €</b>	<b>515.345 €</b>	<b>179.686 €</b>

Iturria: Siadeco, 2014.

➔ Kapital sarrerak:

**33. Taula. 2015erako aurreikusitako kapital sarrerak, kapitulu ekonomikoaren arabera.**

Kapitulu ekonomikoa	Ezkio-Itsaso 2015 I. zatia (2015eko urtarrilak 1etik apirilaren 30era)	Ezkioko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)	Itsasoko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)
6. KAPITULUA. INBERTSIO ERREALAK BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	- €	- €	- €
7. KAPITULUA. KAPITAL TRANSFERENTZIAK	200.000 €	30.000 €	10.000 €
9. KAPITULUA. FINANTZA PASIBOAK	- €	- €	97.231 €
<b>KAPITAL SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>200.000 €</b>	<b>30.000 €</b>	<b>107.231 €</b>

Iturria: Siadeco, 2014.

➔ Sarrera aurrekontuak GUZTIRA:

**34. Taula. 2015erako aurreikusitako sarrera aurrekontu osoa.**

Kontzeptua	Ezkio-Itsaso 2015 I. zatia (2015eko urtarrilak 1etik apirilaren 30era)	Ezkioko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)	Itsasoko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>518.730 €</b>	<b>545.345 €</b>	<b>286.917 €</b>

Iturria: Siadeco, 2014.

➔ Aurrezki gordina eta diruzaintzako saldoen aurreikuspenak

35. Taula. 2015erako aurreikusitako aurrezki gordina eta diruzaintzako saldoak.

Kontzeptua	Ezki-Itsaso 2015 I. zatia (2015eko urtarrilak 1etik apirilaren 30era)	Ezkioko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)	Itsasoko Udala 2015 II. zatia (2015eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra)
AURREZKI GORDINA	78.038 €	157.819 €	54.721 €
SARRERAK GUZTIRA - GASTUAK GUZTIRA SALDOA	- 372.635 €	15.489 €	139.329 €
DIRUZAINZAKO ABIAPUNTUKO SALDOA	1.063.522 €	690.887 €	- €
DIRUZAINZAKO AMAIERAKO SALDOA	690.887 €	706.376 €	139.329 €

Iturria: Siadeco, 2014.

**Bereizketa prozesuaren ondorio ekonomikoen adierazleak (2015. urtea):**

Bereizketa Foru Dekretu bidez onartutako data aurreikuspena: 2015eko apirilak 30

**Ezki-Itsasoko Udala:**

- 2015eko urtarriletik apirilera arte aurreikusitako gastu arruntak 240.692 euro; sarrera arruntak, 318.730 euro. Lau hilabeteri dagokien aurrezki gordina, 78.038 euro. **Aurrezki gordinaren balio erlatiboa, % 24,5.**
- 2015eko urtarriletik ekainera arte aurreikusitako kapital gastuak, 650.674 €; Aurreikusitako kapital sarrerak, 200.000 €, eskola berriaren proiekturako lortutako kanpo finantzaketari lotuak.
- Diruzaintzako saldoaren bilakaera: 2014ko abenduaren 31ko diruzaintza gerakina 1.063.522 eurokoa izanik, eta 2015eko urtarriletik apirilera arteko diru-sarrerak guztira 518.730 € eta gastu aurrekontua guztira 891.366 €koa, Ezki-Itsasoko Udalaren apirilaren 30eko diruzaintza gerakina, 690.887 €koa izatea aurreikusten da. Gastu orokorretarako **diru-zaintza gerakinaren balio erlatiboa** (urte osoko diru-sarrera arruntekiko kalkulatuta), **% 72,3.**

### Ezkioko Udala:

- 2015eko maiatzetik abendura arte aurreikusitako gastu arruntak 357.526 euro; sarrera arruntak, 515.345 euro. Sei hilabeteri dagokien aurrezki gordina, 157.819 euro. **Aurrezki gordinaren balio erlatiboa, % 30,6.**
- 2015eko apiriletik abendura arte aurreikusitako kapital gastuak, 172.330 €; horietatik 97.231 € IX. Kapitulutik Itsasoko Udalari egindako lehen ordainketari dagozkionak eta gainerako 74 mila euro, Ezkion egindako inbertsio errealak. Kapital sarreretarako, 30 mila euroko sarrera aurreikuspena egin da.
- Diruzaintzako saldoaren bilakaera: 2015eko apirilaren 30erako aurreikusitako saldoa 690.887 €koa izanik, eta Ezkioko Udalaren 2015eko maiatzetik abendura arteko diru-sarrerak guztira 545.345 € eta gastu aurrekontua guztira 529.856 €koa, Ezkioko Udalaren abenduaren 31ko dizuzaintza gerakina, 706.376€koa izatea aurreikusten da. **Gastu orokorretarako diru-zaintza gerakinaren balio erlatiboa** (urte osorako Ezkioko Udalarentzat aurreikusitako diru-sarrera arruntekiko kalkulaturik), **% 91,4.**

### Itsasoko Udala:

- 2015eko maiatzetik abendura arte aurreikusitako gastu arruntak 124.965 €; sarrera arruntak, 179.686 €. Zortzi hilabeteri dagokien aurrezki gordina, 54.721 €. **Aurrezki gordinaren balio erlatiboa, % 30,5.**
- 2015eko maiatzetik abendura arte aurreikusitako kapital gastuak, 22.623 €. Kapital sarreretarako, 107.231 €ko sarrera aurreikuspena egin da, horietatik 97.231 € Ezkioko Udalak Itsasoko Udalari transferitu beharreko konpentsazio ekonomikoaren lehen ordainketari dagozkionak.
- Diruzaintzako saldoaren bilakaera: 2015eko apirilaren 30eko saldoa zero izanik, eta Itsasoko Udalaren 2015eko maiatzetik abendura arteko diru-sarrerak guztira 286.917 € eta gastu aurrekontua guztira 147.588 €koa, Itsasoko Udalaren abenduaren 31ko dizuzaintza gerakina, 139.329 €koa izatea aurreikusten da. **Gastu orokorretarako diru-zaintza gerakinaren balio erlatiboa** (urte osorako Itsasoko Udalarentzat aurreikusitako diru-sarrera arruntekiko kalkulaturik), **% 51,7.**

## 7/2/c 2016TIK AURRERAKO URTEKO GASTU ETA SARRERA AURREIKUSPENAK

### ➔ Gastu arruntak

**36. Taula. Udal bakoitzerako aurreikusitako gastu arruntak, kapitulu ekonomikoaren arabera.**

Kapitulu ekonomikoa eta artikulua	Ezkioko Udala	Itsasoko Udala
1. KAPITULUA – PERTSONAL GASTUAK	248.182 €	80.499 €
2. KAPITULUA - GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	240.454 €	56.821 €
3. KAPITULUA – FINANTZA GASTUAK	- €	- €
4. KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	79.920 €	69.635 €
<b>GASTU ARRUNTAK GUZTIRA</b>	<b>568.556 €</b>	<b>206.954 €</b>

*Iturria: Siadeco, 2014.*

### ➔ Sarrera arruntak:

**37. Taula. Udal bakoitzerako aurreikusitako sarrera arruntak, kapitulu ekonomikoaren arabera.**

Kapitulu ekonomikoa	Ezkioko Udala	Itsasoko Udala
1. KAPITULUA. ZUZENEKO ZERGAK	207.780 €	35.668 €
2. KAPITULUA. ZEHARKAKO ZERGAK	30.880 €	10.818 €
3. KAPITULUA. TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	119.910 €	27.274 €
4. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	390.923 €	189.253 €
5. KAPITULUA. ONDARE SARRERAK	23.524 €	6.516 €
<b>GUZTIRA OHIKO SARRERAK</b>	<b>773.017 €</b>	<b>269.529 €</b>

*Iturria: Siadeco, 2014.*

### ➔ Aurrezki gordinaren aurreikuspena

**38. Taula. Udal bakoitzerako aurreikusitako aurrezki gordina.**

Kontzeptua	Ezkioko Udala	Itsasoko Udala
<b>AURREZKI GORDINA</b>	<b>204.461 €</b>	<b>62.575 €</b>

*Iturria: Siadeco, 2014.*

## 8 EZKIO ETA ITSASOREN ARTEKO ONDARE

### BANAKETA

Itsaso Ezkio-Itsasotik bereizteko espedientearen dokumentazioa osatzeko, bakoitzaren lur eremuan kokatutako ondasunen zerrenda eranstean da jarraian.

Udalerrri eremu bakoitzari dagokion ondarearen zerrenda, ondoko kategorien arabera sailkatu da:

- **ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK:** udal ondasunekoak diren eraikinak eta azpiegiturak sartzen dira kategoria honetan, alegia, udaletxea, ostatuak, hilerriak, mediku-etxea, haur eskola, herri guneeetako plazak eta haur parkeak eta Ezkio-Itsasoko Udalarenak diren bestelako eraikinak.
- **ERAIKINEI LOTURIKO LURZORU LIBREA:** aurreko kategorian sailkatzen diren eraikinen ondoan kokatzen den lurzoru librea da.
- **LURSAILAK:** udalaren ondasunekoak diren bestelako lursailak.
- **HERRI BIDEAK:** ondare-elementu garrantzitsuak diren arren, ez dira ondare zerrenda honetan txertatu, gaur egun Ezkio-Itsasoko Udala bideen inbentarioa eguneratzeko lanetan ari delako.
- **ALTZARI ARTISTIKO EDO HISTORIKOAK:** herri-gune bakoitzari dagozkion altzari artistiko edo historikoak.
- **ONDASUN HIGIGARRIAK:** herri lan eta udal zerbitzu ezberdinetarako erabiltzen diren eta Ezkio-Itsasoko Udalarenak diren bestelako material eta tresneria (herri lanetarako traktorea, ibilgailua...)

## 8/1 Itsasoko ondarea

### ➔ Eraikinak eta azpiegiturak

39. Taula. Udal ondarekoak diren Itsasoko eraikinak.

Izena	Kokapena	Balorazio ekonomikoa
Goiko Ostatua	Itsaso	114.662,29
Goiko Ostatuko Plaza	Itsaso	7.969,42
Itsasoko hilerria	Itsaso	0,00
Itsasoko Ostatua	Itsaso	255.880,90
Eskola Nazionalaren eraikina	Itsaso	63.373,78
Itsasoko Plaza (Ostatuaren ondoan)	Itsaso	21.507,22
Eskola Nazionalaren eraikina (Alegiko Elkartea)	Itsaso-Alegi	66.308,10
Frontoia	Itsaso-Alegi	197.985,09
Alegiko Plaza (frontoia eta Eskola Nazionalaren ondoan)	Itsaso-Alegi	23.831,63

Iturria: IDOMen txostena 1994, Ezkio-Itsasoko Udala, 2014. Siadecok landua.

### ➔ Eraikinari loturiko lurzoru librea

40. Taula. Udal ondarekoak diren Itsasoko eraikinei loturiko lurzoru libreak.

Izena	Kokapena	Azalera (m2)	Balorazio ekonomikoa
Lurzoru librea (Itsasoko Ostatua)	Itsaso	522	13.333,45
Lurzoru librea (Eskola Nazionalaren eraikina)	Itsaso-Alegi	597	15.249,18
Lurzoru librea (Frontoia)	Itsaso-Alegi	303	7.739,53

Iturria: IDOMen txostena 1994, Ezkio-Itsasoko Udala, 2014. Siadecok landua.



 **Lursailak**

**41. Taula. Udal ondarekoak diren Itsasoko lursailak.**

Izena	Kokapena	Azalera (m2)	Balorazio ekonomikoa
AIU-4ko lursaila	Itsaso	22	103.596,55
AIU- 4.1-eko lursaila	Itsaso	1926	Ezin izan da baloratu
AIU- 4.1-eko lursaila	Itsaso	1033	Ezin izan da baloratu
Lursaila	Itsaso	98,17	Ezin izan da baloratu
AIU-4.2ko lursaila (6. ZK.)	Itsaso	4862	Ezin izan da baloratu
AIU-4.2ko lursaila	Itsaso	309	42.000,00
Alegiko lursaila (zelaia)	Itsaso-Alegi	359,68	4.323,08
Intxaurrondo etxe ondoko lursaila	Itsaso-Alegi	32,32	92,46
Frontoi inguruko lursaila	Itsaso-Alegi	350	4.207,08
Alegiko plazaren inguruko lursaila	Itsaso-Alegi	148,57	40,18

*Iturria: IDOMen txostena 1994, Ezkio-Itsasoko Udala, 2014. Siadecok landua.*

## 8/2 Ezkioko ondarea

### ➔ Eraikinak

42. Taula. Udal ondarekoak diren Ezkioko eraikinak.

Izena	Kokapena	Balorazio ekonomikoa
Argindegi etxea (Ostatua)	Ezkio	107.469,08
Ezkioko Plaza	Ezkio	4.853,17
Eskola Nazionalaren eraikina	Ezkio	45.352,61
Ezkioko hilerria	Ezkio	Ezin izan da baloratu
Argindegi Ostatuaren ondoko eraikina	Ezkio	Ezin izan da baloratu
Santa Lutzi Zahar	Ezkio-Santa Lutzi	361.020,46
Santa Lutziko eskola nazionala (Elkartea)	Ezkio-Santa Lutzi	45.352,61
Santa Lutziko plaza (Santa Lutzi Zahar ondoan)	Ezkio-Santa Lutzi	7.841,71
Udaletxe zaharra	Ezkio-Santa Lutzi	259.093,31
Mediku etxea	Ezkio-Santa Lutzi	216.464,25
Ezkioko amabirjinaren aterpea	Ezkio-Santa Lutzi	Ezin izan da baloratu
Lokala (Errekabarrena, 5)	Ezkio-Errekabarrena	57.525,38
Lokala (Errekabarrena, 5)	Ezkio-Errekabarrena	57.098,10
Industri guneko lokala	Ezkio-Anduaga	130.491,75

Iturria: IDOMen txostena 1994, Ezkio-Itsasoko Udala, 2014. Siadecok landua.

### ➔ Eraikinari loturiko lurzoru librea

43. Taula. Udal ondarekoak diren Ezkioko eraikinei loturiko lurzoru libreak.

Izena	Kokapena	Azalera (m2)	Balorazio ekonomikoa
Lurzoru librea (Argindegi etxea eta Eskola Nazionala)	Ezkio	1672	42.707,92
Lurzoru librea (Mediku etxea)	Ezkio-Santa Lutzi	322	8.224,85

Iturria: IDOMen txostena 1994, Ezkio-Itsasoko Udala, 2014. Siadecok landua.

## ➔ Lursailak

**44. Taula. Udal ondarekoak diren Ezkioko lursailak.**

Izena	Kokapena	Azalera (m2)	Balorazio ekonomikoa
ADU-9ko lursaila	Ezkio	8309,63	74.912,82
AIU-7ko lursaila industrialak	Ezkio	40145,27	Ezin izan da baloratu
ADU-2 inguruko lursaila	Ezkio	45	0,00
Ur ekarrerarako lursaila (Elurmendi)	Ezkio	180	Ezin izan da baloratu
Lursaila "e.30-5.1/1")	Ezkio	230,77	Ezin izan da baloratu
Igartubeitiko lursaila	Ezkio	3642	9.435,02
Ur hartuneak dauden lursaila	Ezkio	825	Ezin izan da baloratu
Lursaila "f.10-5.1/3"	Ezkio	680	Ezin izan da baloratu
Atzurtzako lursaila	Ezkio	2.021	Ezin izan da baloratu
Etxeberrialdeko etxeen atzekaldeko lursaila	Ezkio-Santa Lutzi	3153,36	84.141,69
Udaletxe zaharraren atzekaldeko lursaila	Ezkio-Santa Lutzi	10714	9.087,30
Udaletxe zaharraren atzekaldeko lursaila	Ezkio-Santa Lutzi	288	Ezin izan da baloratu
Udaletxea eta AIU-7 arteko lursaila	Ezkio-Santa Lutzi	3000	12.020,24
ADU-2 inguruko lursaila	Ezkio-Santa Lutzi	93	Ezin izan da baloratu
Lursail lagapena (5. ZK.)	Ezkio-Gurrutxaga	280	Ezin izan da baloratu
Espazio irekietarako lursail lagapena (6. ZK.)	Ezkio-Gurrutxaga	1639,21	Ezin izan da baloratu
Espazio irekietarako lursail lagapena (7. ZK.)	Ezkio-Gurrutxaga	53,03	Ezin izan da baloratu
Bideetarako lursail lagapena (8. ZK.)	Ezkio-Gurrutxaga	2219,21	Ezin izan da baloratu
Udaletxe zaharraren lursaila	Ezkio-Santa Lutzi	960,4	42.070,85
Ekipamenduetarako lursaila "g.10-6.1/1"	Ezkio-Ojarbide	468,47	Ezin izan da baloratu
Espazio irekietarako lursaila "f.11"	Ezkio-Ojarbide	5704,83	Ezin izan da baloratu
Bideetarako lursaila "e.20/1"	Ezkio-Ojarbide	4177,23	Ezin izan da baloratu
Lursail lagapena (1. ZK.tik – 29. ZK-ra arte)	Ezkio-Errekabarrena	11503,15	332.712,27

*Iturria: IDOMen txostena 1994, Ezkio-Itsasoko Udala, 2014. Siadecok landua.*

## ➔ Altzari artistiko edo historikoak

**45. Taula. Udal ondarekoak diren Ezkioko altzari artistiko edo historikoak.**

Izena	Kokapena	Balorazio ekonomikoa
Ezkioko kruzeroa	Ezkio	Ezin izan da baloratu
Santa Lutzi kruzeroa	Ezkio-Santa Lutzi	Ezin izan da baloratu
Santa Lutzi Plazako pikota	Ezkio-Santa Lutzi	Ezin izan da baloratu

*Iturria: IDOMen txostena 1994, Ezkio-Itsasoko Udala, 2014. Siadecok landua.*

➔ **Ondasun higigarriak**

46. taula. Udal ondarekoak diren ondasun higigarriak.

Deskribapena	Balorazio ekonomikoa (€)
Ibilgailua (Nissan Pickup)	3.860,00
Ibilgailuaren atoaia (erremolkea)	Ezin izan da baloratu
Traktorea	43.889,12
Traktorearen desbrozadora	22.697,18
Traktorearen atoaia (erremolkea)	7.142,86
Abonadora (gatza banatzeko)	2.146,00
Elurra kentzeko tresna	2.440,11
Elurra kentzeko tresna	13.977,32
Desbrozadora	Ezin izan da baloratu
Desbrozadora	Ezin izan da baloratu
Desbrozadora	775,00
Desbrozadora haizezkoa	700,00
Karpa	17.748,00
Oholtza	9.736,12
Belarra mozteko makina	3.753,18
Belarra mozteko makina	1.399,97
Hormigonera	610,02
Argindar generadorea	830,00
Rotaflesa	Ezin izan da baloratu
Taladroa	180,00
Puxkatzeko mailu elektrikoa	1.899,05
Rotafles txikia	98,03
Zerra	562,65
Kalatzeko zerra	110,00
Motozerra	659,00
Setoak moztekoa	319,00
Soldeatzeko makina	310,00
Torniloak lotzekoa	135,07
Microchip irakurgailua	230,00
Karcher	605,00
Hodi libragailua	399,30
Lijadora	408,20
Engrasadorea	283,44
Fresadora	272,29
Balantza	394,93

Iturria: Ezkio-Itsasoko Udala, 2014. Siadecok landua.